

## Kultura

Basque Ultra Trail zirkuituko azken proba Durangaldetik igaroko da zapatuan. Silvia Trigueros lider dago orain arteko hiru lasterketak irabazita. > 13



**JAIAK!**

**DURANGO**



Argazkia: Sergi Camara

## Aro berri baten hasiera?

Durangaldeko hainbat lagun egon ziren domekan Katalunian historiarako irudiak utzi zituen erreferenduma babesten. Horren ostean, zalantzarik gabeko egoera batean dago Katalunia. Han gertatzen denak estatuan eragin dezake, eta baita Euskal Herriko egoera politikoan ere. > 2-3

## Bonbardaketa: Herri-salaketa bat jarriko dute lekukoekin batera

Durangoko alkateak uztailearen 18an aurkeztutako kereila berretsi zuen, martitzenean, Ezkurdiko epaitegian. Orain, epailea ikerketarako fasean sartzea espero da. Bonbardaketaren egileen aurkako auziak adar berri bat edukiko du laster, herri-salaketa bat ipiniko baitute erasoaren lekukoekin batera. Bestalde, egindakoa onartzea eskatu diote Italiari. > 4

*“Euskal Herrian lotura estua egon da eta dago basoaren eta gizartearen artean”*



Aitor Onandia | Basoa Fundazioa > 10

◆◆◆ Ondo pasa jaietan! ◆◆◆



**BELARDENDA  
NATURALKI  
EKODENDA**

ORAIN  
ETXERAKO  
ZERBITZUA

Barrenkalea, 28 | 946 817 918 | [www.naturalkibelardenda.es](http://www.naturalkibelardenda.es)

### Iurreta > 5

Sarrionandiari aitortza publikoa egingo diote sorterrian

### Zornotza > 6

Musika eskolako eraikin berriak frontoiko horma bistaratu du

### Izurtza > 8

Izurtzako aterpetxea gazte etorkinei irekita dago apiriletik

### Garai > 9

Zubiaurre familiaren errautsak Garaira ekarri dituzte



## Herririk herri



# “Ikasbidea izan da, gizatasun, errespetu, erresistentzia baketsu eta duintasunaren aldetik”

**> ELKARRIZKETA** Jone Guenetxea Eli Puiggròs (Bartzelona, 1974) eta Igor Arkarazo (Abadiño, 1974) bikotea Katalunian izan zen joan zen asteburuan. Eli katalana da eta hainbat urtez Abadiñon bizi da. Urriaren 1eko erreferenduma familian bizi gura izan zuten.

Zelan bizi izan zenuten erreferendum eguna Katalunian?  
**Eli Puiggròs:** Bizi osoan egun honen zain egon naiz, amestera ere ausartzen ez ginen eguna. *El día que durará anys*, esaten den bezala. Eta horrela izan zen. Orduak pasatzen ez ziren egun eternoa izan zen. Ikasbidea izan zen niretzat, gizatasun, errespetu, erresistentzia baketsu eta duintasunaren aldetik. Harrezkero, ez naiz pertsona be-

ra. Anekdoten artean, akorduan geratu zaizkit pertsona nagusi edo gaixoak, mehatxu eta eraso ginetik, botoa eskuan zutela etortzen eta ukabila altxatuz hauteslektutik irteten.

**Martitzeneko greba egunean Bartzelonatik Abadiñorako bidetari ekin zenioten. Zelako bidaia izan zenuten?**  
**Igor Arkarazo:** Bidaia inoizko luzeena izan zen. Bartzelonatik kale artetik irten ginen autobidera. Errepideak traktoreekin itxita aurkitu genituen. Lehengo bizitzan, autobidean onenen artean gelditu egotearen poztasun itzela sentitu nuen.

**Zein sentsazio gelditu zaizue?**  
**E.P.:** Harro gaude herri katalana independentzia adierazpe-

nera eramango duen erreferendumaren emaitza eta duintasunagatik. Hala ere, arduratuta gaude oraindik estatu ez demokratiko batean gaudelako, eta bere erreakzio biolentoak kezkatzen gaitu.

**Egoera honek zein irtenbide izan dezake?**

**I.A.:** Herri katalanak ibilbide luzea egin du estatuagaz adostuta-

“**Herria ahaldundu egin da eta dagoeneko ez du inoren baimenik itxaroten**”

ko erreferenduma egin ahal izateko. Bide horretan herria ahaldundu egin da eta dagoeneko ez du inoren erantzun edo baimenik itxaroten. Bere etorkizuna demokratikoki erabaki du, oztopo guztien ginetik. Hainbat auzipetu daude, eta 800 lagunetik gora, zaurituta. Gure ustez, hautetsontzietan herriak adierazitako borondatea errespetatzea da irtenbide bakarra.

**Familia eta lagunak dituzue Katalunian. Haustura sozialari buruz berba egiten da. Katalanek horrela bizi dutela uste duzue?**

**E.P.:** Inondik inora. Katalunia herri anitza da, hizkuntza eta kulturetan aberatsa, mundu osoko identitateen topagune eta izendatzaile komun bate-

gaz: kultura katalana. Erreferenduma baietzak eta ezetzak balio zuen ekintza demokratikoa izan zen, eta horren lekuko izan ginen.

**Gobernu zentralak azken hilaletan izandako jarrearen eraginez, independentistak izan ez diren katalan ugari baietzaren alde egotera pasatu direla diote iritzi askok. Zuek uste horregaz bat zatozte?**

**I.A.:** Pertsona askorengan eragin ahal izan du, zalantzarik barik. Baina, azpimarratu gura genuke Katalunian azken urteetan gertatu den transformazioak herrialde berri bat sortzeko proiektuagaz ilusionatu diren kolektibo eta sentsibiltate ugari ukitu dituela.

**anboto**   
 komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
 48215 Iurreta - Bizkaia  
 Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
 Publizitatea: 946 217 902  
 publi@anboto.org

2017ko urriaren 6a  
 14. urtea - 692. alea

Lege gordailua:  
 BI-2268/01  
 ISSN:  
 1578-7028  
 Tirada:  
 11.500 ale



**Zuzendaria:** Jone Guenetxea  
**Arrinda. Erredakzio burua:** Markel Onaindia Txabarri. **Administrazio burua:** Itziar Belar Zubizarreta. **Administrazioa:** Miren Abasolo Txabarri. **Publizitatea:** Itxaso Martínez de Arenaza Yarza eta Nagore Txintxurreta Isasi. **Erredakzioa:** Aitziber Basauri Gandiaga, Itsaso Esteban Urriaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, eta Maialen Zuazubiskar Gallastegi. **Maketazioa:** Eider Alberdi Bengoa. **Zuzentzailea:** Mikel Azkarraga Etxegibel.

LAGUNTZAILEAK

**Bizkaia**  
 foru aldundia  
 diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
 POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
 Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



## Aro berri baten hasiera ate joka, Katalunian

Astelehenean bildu gura dute parlamentuan, eta baliteke independentzia aldarrikatzea

**ERREPORTAJEA** M. Onaindia  
Erreferendum egunak historiako irudiak utzi zizkigun, poliziaren kolpeen aurrean botoa eman gura zutenen erresistentzia baketsuarenak. Mundua zeharkatu dute. Gainera, Espainiako gobernuak ez zuen erreferenduma guztiz oztzatzea lortu; herritarren defentsari esker, erroldako %42k parte hartu zuten, 2,2 milioi herritarrek –%90 independentziaren alde–. Horri, poliziek baliorik barik utzitako

770.000 boto gehitu behar zaizkio, Generalitatearen arabera. Emaitzak ontzat jota, aro berri baten hasiera ate joka dago Katalunian. Baita estatuan ere, 1978an martxan jarritako sistema hankaz gora jarri daitekeelako. Zelan ez, Euskal Herriko politikan ere eragina eduki ahal du. Horren erakusle dira azken egunetako protestak eta Kataluniara joandako jende andana. Astelehenerako bilkura deitu dute parlamentuan, seguruenik



Katalan ugari konbentzimendu osoz ari dira independentziaren alde. Sergi Camara

independentzia aldarrikatze-ko–Konstituzionalak debekatu egin du bilkura–. Aldi berean, nazioarteko bitartekaritza baterako proposamena egin du Puig-

demont presidenteak, deskone-xioa traumatikoa izan ez dadin. Baina, Erregea, Espainiako gobernuak, PSOE eta Ciudadanos ez dirudi horretarako prest dau-

denik. Autonomia bertan behe-ra uzteko mehatxua indartu da. Beraz, astelehena zalantzaz betetako etapa berri gatazkatsu baten lehen eguna izan daiteke.

## Durangoko zinegotziak laguntzaile izan dira

Begirale izan eta kontaktetan parte hartu dute

Durangoko EH Bilduko bost zinegotzi Katalunian izan dira Udalbiltzaren ordezkariaren baitan, erreferendumaren begirale eta laguntzaile. “Akreditazio bat geneukan, eta jendearen albotik pasatzean, oso hunkiga-

ria zen egiten ziguten harre-ra”, esplikatu du Eider Uribek. Boto kontaktetan ere egon ziren. Taldeka banatuta egin zuten lan zinegotziek. Uribe ibili zen eskoletan, Bartzelonan, ez zen istilurik egon; Ion Andoni del

Amori eta Iker Urkizari Vic eta Manresan egotea tokatu zitzaizkien, eta han ere lasaitaunez bozkatu zuten. Goizean, eskolak zabaldu zituztenean, barruan egon zen Uribe. “Ikargarria zen zenbat jende zegoen 06:00etatik ilara egiten”.

Ilusioa eta emozioa ikusi zituen zinegotzi durangarrak. “Bizitza osoan honi itxaroten egon direla esaten zigun jendeak”, adierazi du. Berak inbidia sana ere sentitu zuela aitortu du, bozkatzeko gogoia.



Jon Bingen Landabidea eta Eider Uribe, hautetsontzi baten parean.



Arrasate eta Durangaldeko beste hainbat lagun.

## Katalunian bizitako “egun zoragarriak”

Erresistentzian parte hartu dute hainbatek

Kataluniako erreferenduma babesteko asmoz makina bat jende joan zen Durangaldetik hara, erresistentzia zibil handi horren parte izan zirenak. Martin Arrasate Iriarte gazte durangarrak hunkituta berba egin zuen Bartzelonatik. “Ere-

du bat iruditu zaigu estatuaren errepresioaren aurrean eduki duten jarrera”.

04:30ean esnatu eta eskola bat defendatzera joan ziren Arrasate eta bere lagunak. “08:00etan etorri ziren polizia nazionalak, eta 10:30ak arte

ibili ziren guri egurra ematen, hautetsontziak kendu arte”, azaldu du. Gero, beste eskola batera mugitu ziren, eta gauza bera egin zuten egunean zehar, eskoletan sortzen ziren beharrezan araberak.

Bartzelonan bizitakoa Euskal Herrirako baliagarri izan daitekeela uste du Arrasatek. “Eurek prozesu honetan erabilitako hainbat ezaugarri ekarri behar ditugu Euskal Herrira, eta guk bide berri bat hasi, hau posible izateko”, gaineratu du.

## Elkartasun keinu ugari, Durangaldetik Kataluniara

Martitzenean bat egin zuten greba orokorragaz

Generalitateko kontseilariak atxilotu zituztenetik hona, elkartasun keinu ugari egin dituzte Durangaldeko herritarrek ere Kataluniara begira. Keinu horiek domekan areagotu ziren, erreferendum egunean poliziak erabilitako indar-

keriaren ostean. Gau horretan, ehunka biztanle kazeroladak egiteko elkartu ziren herririk herri.

**Enpresetan batuta**  
Martitzenean, Kataluniako greba orokorraren egunean,

gehiengo sindikalak elkarretaratzeetara deitu zuen eguerdian, eta hainbat lantokitan egin zuten bat: Durango, Erorrio eta Zornotzako udaletxeak; Kurutziaga eta Ibaizabal ikastolak; Gestamp, Rothenberger eta Smurfit enpresak...

Arratsaldean, herritar taldeek deitutako mobilizazioek eman zioten segida protesta jardunaldiari. Gauez, ostera, berriro ere kazeroladak egin zituzten, kasu honetan norbere etxetik.



Martitzen eguerdian hainbat lantokitan batu ziren katalanen alde.



## Herri-salaketa bat ipiniko dute bonbardaketaren egileen aurka

Udalak berretsi egin du epaitegian uztailearen 18an aurkeztutako kereila



Udaleko eta elkarteetako ordezkariak, martitzenean, Ezkurdiko epaitegian.

**DURANGO** Markel Onaindia Uztailearen 18an aurkeztutako kereila berretsi egin zuen martitzenean Aitziber Irigoras alkateak, Martxoak 31 batzordearen izenean. Epailea eta fiskaltza ikerketan sartuko dira orain, eta ez dago argi kereilaren in-guruko hurrengo berria noiz izango den. Epaitegitik irtetea, justiziaren bidean beste pauso

bat dakarren notizia berri bat eskaini zuen Andoni Barreñak (Durango 1936 elkarte): urri amaieran edo azaro hasieran herri-salaketa bat jarriko dute.

Gainera, salaketan parte hartzeko deia egin zien herritarrei, batez ere eraso faxistaren lekuko izan zirenei. Kasu horretan, elkar-teagaz hartu-emanetan ipintzea eskatu zuen.

Ekitaldian, batzorde berezian parte hartzen duten elkar-teak ere egon ziren presente, udaleko alderdiez gainera —denak PP salbu—. Gerediagako kide eta kereilarako ikerlari izan den Jon Irazabalek eraso onartzeko deia egin zion Italiako gobernuari, Sorian (Espainia) duela 2.150 urteko eraso bategaz egin duen bezala.

## Benita Uribarrena parkea zabalik, gaur

Arte eta Historia museoko parkea berri dute

**DURANGO** M.O.

Durango parke bat gehiago edukiko du gaurtik aurrera. Arte eta Historia museoren atzeko aldeko parkea berri dute eta zabaldu dute, eta gaur egingo dute inaugurazio ofiziala, 18:00etan. Benita Uribarrena izena ipiniko diote, Durangotik Frantziara ihes egin behar izan zuen borrokalari antifaxistarena. Bere familiako 14 kide etorriko dira, eta udalak herritarrei ere bertaratzeko deia egin die. Plaka biren agerpenaz

gainera, Idoia Bediaga eta Gehi Zazpi musikarien emanaldiak barnebilduko ditu ekitaldiak.

Aitziber Irigoras alkateak eta Pilar Rios zein Mari Jose Balier alkateordeek nabarmendu dute parkearena berdintasuna zeharkakotasunez beste arloetan lantzearen adibide dela.

Parke horretan, EH Bilduk auzolanak egin zituen birritan, itxita egon den gunearen egoera salatu eta herrira zabaltzeko asmoz. Irigorasek esan du haiek “txapuzak” izan zirela.



Alkatea eta alkateordeak, martitzenean, parkean bertan.

## Durango lehen jolasgune estalia prest dago, Landako ikastetxean

Proiekturako 75.000 euro erabili ditu udalak, eta asteen amaitu ditu obrak

**DURANGO** M.O.

Herritarrek 2015etik egindako eskaerari erantzunez, prest dago Durango lehenengo jolasgune estalia. Asteen amaitu ditu lanak udalak, eta 75.000 euro erabili ditu aterpea altxatzeko. Aitziber Irigoras alkateak norabide berean jarraitzeko asmoa agertu du. “Gobernu taldeak lanean jarraituko du, ahal den neurrian, Durango bigarren parke bat estaltzeko aukera guztiak aztertuz”, adierazi du.

Dagoeneko ikasturtea martxan dago Landako eskolan, eta egunotan ikasleek ezin izan du-

te erabili jolasgune hori. Baina udalak adierazi du epeen barruan amaitu duela obra.



Aterpe berria, Landako eskolan.

## Berdintasuna zeharka landuko dute teknikariek

II. Berdintasun Plana onartu du udalak, aho batez

**DURANGO** M.O.

Osoko bilkurak joan zen asteen onartu zuen, aho batez, 2017-2019 urteetan martxan egongo den II. Berdintasun Plana. Datoren hileetarako helburuak eta ekintzak zehaztu dituzte, eta horiek aurrera zelan eraman ere bai. Udalak zeharkakotasunez garatuko du berdintasuna, gainerako arloetan txertatuta, genero ikuspegia herritarrengan eragin handia duten programa eta egitasmoetan jasota ego-

teko. Horregatik, teknikarien mahai bat sortu dute, denen artean koordinatzeko.

Bestalde, lau neurri adostu dituzte indarkeria matxistari aurre egiteko: gizartea implikatu gura duen Herritarren Ituna —atzo berretsi zuten agerraldi batez—; biktimak hobeto ardatzeko eskualdeko protokoloa; puntu beltzen mapa; eta mugimendu feministari babesa eskaintzea, erasoan harira egiten dituen ekintzetan.

MATERIAL DE CONSTRUCCION  
**MACOBER**

Eraikuntzarako materiala  
**MACOBER**

Zeramika eta gresa

Eitua industriagunea, 66 BERRIZ  
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

**hitz** artekalea 23, durango  
946 810 776  
info@hitzliburudenda.com

#gomendioak

liburudenda

JENIS JOPLIN  
HELDUENTZAT  
Uxue Alberdi  
2017

UME ETA GAZTEENTZAT  
ITZALAK BIZI DIREN LURRALDEA  
Alberto Ladrón Arana  
2015

MUSIKA  
GELDIALDI BAKOITZEAN  
Beñat Igerabide  
2017



# Sarrionandiaren ondare literarioak urria zipriztinduko du

Joseba Sarrionandiari esker ona adierazteko jardunaldiak egingo dira Iurretan, urriaren 9tik 28ra

**IURRETA** Aitziber Basauri  
Joseba Sarrionandia idazle iurretarrari aitortza publikoa egin guran, esker oneko jardunaldiak egingo dituzte Iurretan, urriaren 9tik 28ra bitartean. Jardunaldion baitan Peru Magdalenak eta Pello Salaberriak sortutako *Joseba Sarrionandia, hemen eta han* dokumentala ere estreinatuko dute.

“Joseba Sarrionandiari gure herria munduan zabaltzeagatik zerbait zor diogunaren pertzepzioa izan dut beti”. Halaxe esan du Iñaki Totorikaguena alkateak. “Orain, berdin egin gura dugu geuk ere”. Iurretak idazle bera eta bere lan oparoa zabaltu gura du herrian eta Durangaldean, “Sarrionandia Iurretan eta munduan kokatuz”, Totorikaguenak esan duenez.

‘Joseba Sarrionandia, hemen eta han’ dokumentala estreinatuko dute urriaren 28an

Idazle iurretarraren lana bere osotasunean eman gura dute ezagutzera, “beldurrak uxatuz”

eta “mitoaren irudia” gailenduz, alkatearen berbetan: “Idazle jaso eta jantzia izanagatik, zaila izatea egotzi zaio. Baina, kalitatezko obra da berea”. Hainbat genero literario landu ditu eta hizkuntza askotara itzuli da.

Sarrionandiaren obragaz zipriztindu gura dituzte kaleak, eta horretan lagunduko dute herriko 20 puntu esanguratsutan jarriko dituzten idazlearen esaldi eta poema zatiak. Horretarako, euskara, gaztelania, errumaniera, arabiera, ingelesa eta frantsesa erabili dituzte, herriaren izaera kontuan hartuz.

## Sarrionandia, iruditzen

Sarrionandiari bere lanaren aitortza egiteko, udalak herriko elkarte eta eragileen laguntzagaz antolatutako ekitaldi nagusia urriaren 28an izango da, Askondon, 18:30etan. Orduan erakutsiko dute *Joseba Sarrionandia, hemen eta han* dokumentala ere. Peru Magdalenak azaldu duenez, “idazlearen biografia zenbait garai jasotzen ditu dokumentalak, bere inguruko lagun, kide eta artisten eskutik. Kubako bere ikasleak agertzen diren momentua ere oso emotiboa da”. Gaineratu duenez, “pa-



Iurretako hainbat elkarte eta eragilek parte hartu dute Joseba Sarrionandiari esker oneko jardunaldien antolakuntzan.

radoxa da beti fokuetatik ihesi egondako pertsona izanik, orain fokua berari jarrita egotea. Oreak lortzeko lan hori oso aberasgarria izan da sorkuntzarako”. Egun horretan, 11:00etan, ‘Josebaren lekuak’ ibilbide literarioa ere egongo da.

Maiztegi eta Juan Orobioitia ikastetxeetako ikasleen eskutik irakurketa publikoa antolatu dute urriaren 25erako, eta, 26an, *Joseba Sarrionandiaren ondarea* literatur berbaldia egongo da, Aitzpea Azkorbebeitia eta Jose Julian Bakedanogaz.

Sarrionandiaren esaldi eta poema zatiak jarriko dira Iurretako 20 puntu esanguratsutan

Ondoren, *Tiempo de exilio* errezitaldia eskainiko du Isaac Xubinek. Argitu ez duten gonbidatu berezia ere egongo da kultur etxean egingo den ekitaldian.

Urriaren 27an, berriz, Dejabu papin laborategiaren eskutik

haurrentzako ipuin kontaketa egongo da, eta KARRIKA antzerki taldeak *Izarrak marratzen* obra eskainiko du. Ekitaldiotarako gonbidapenak urriaren 16tik aurrera egongo dira eskura, kultur etxean. Urriaren 9, 16 eta 24an irakurketa klubak egongo dira.

## Erakusketa

Joseba Sarrionandiaren lan bibliografikoaren erakusketa ere jarriko dute liburutegian, eta idazleari helaraziko zaion liburu batean idazteko aukera emango zaio bertaratzen denari.

## Alokairurako diru-laguntzak eskatu daitezke

**IURRETA** Aitziber Basauri  
Iurretako gazteek urriaren 31ra arte dute aukera etxebizitzaren alokairurako diru-laguntzak eskatzeko. Iaz lez, 9.000 euro bideratuko ditu udalak 18 eta 35 urte bitarteko gazteei zabaldutako deialdi horretara.

Alokairuaren erdia da laguntzaren zenbatekoa —komunitateko eta etxebizitzaren eranskinetako gastuak deskontatuta— eta, gehienez, 250 euroko laguntza emango da hilabeteko. Euren emantzipazio prozesuan “babesa” eman gura die gazteei ekimen honek. Bost eskari onartu zituzten iaz, eta onuradun bakoitzak 1.800 euroko laguntza jaso zuen. Herritarren Arretarako Zerbitzuan edo [www.iurreta.eus](http://www.iurreta.eus) webgunean eskuratu daitezke informazio gehiago.

## Estalpea jartzeko lanak hasi dituzte orain astebete

Lanak aurten amaitzea da udalaren helburua

**MALLABIA** J.D.

Joan zen asteko eguaztenez hasi zituzten plaza eraberritu eta egurrezko estalpea jartzeko lanak. Plaza hesitzea eta bertan zeuden bankuak eta bestelako osagaiak kentzea izan zen lehen lana. Udalbatzarrak Indenort enpresari esleitu zion proiektua.



Plazan egurrezko estaldura bat jarriko dute, besteak beste.

Irail hasieran hastekoak ziren, baina enpresatik kanpora eskatutako material batzuen zain zeuden lanei ekin ahal izateko, enpresako iturriek azaldu dutenez. Ondorioz, iraileko azken astera arte itxaron behar izan dute. Plazako lanak aurten amaitzea da helburua.

**ibaizabal**  
IKASTOLA

**DOAKO IKASTAROKAK**

## 2017-2018 IKASTURTEKO IKASTAROEEN ESKAINTZA

**INFORMAZIOA eta IZENA EMATEA** [www.ibaizabalikastola.eus](http://www.ibaizabalikastola.eus)  
Tel.: 94 621 58 77 · [ikastaroak@ibaizabalikastola.eus](mailto:ikastaroak@ibaizabalikastola.eus)  
Izena emateko epea: ikastaroa hasi baino aste bat lehenagora arte

### PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRIA

IKASTAROKAK	ORDUA	EPEA	ORDUTEGIA
<b>Ur eremu Naturaleko sorospena</b> AFDP0209	180	2017/10/24 2017/12/15	9:30/14:30 asteleheneetik ostiralera
<b>Ur instalazioetako sorospena</b> AFDP0109	290	2017/12/21 2018/04/23	15:00/20:00 asteleheneetik ostiralera

**ibaizabal**  
IKASTOLA

**Lanbide**  
Euzko Errepublikako Lanbide Zerbitzua

**IKASTOLA**  
IKASTOLA

**Ibaizabal Ikastola** Intxaurren kalea, 54. 48200 DURANGO



# Musika eskola berriak frontoiko horma bistaratzea ahalbidetuko du

Anbulatorio zaharra 2018. urte hasieran eraistea aurreikusten dute



Musika eskola berria egiteko proiektuak 18 hilabeteko egikaritze epea dauka.

**ZORNOTZA** Joseba Derteano Anbulatorio zaharra datorren urte hasieran eraistea aurreikusi du udalak. Orube horretan musika eskola berria eraikiko dute. Oraingo eraikina Zelaieta Zentroari itsatsita dago alde batetik, baina berriak ez du lotura hori izango. Metro gutxi batzuek banatuko dituzte Musika eskolaren eta Zelaieta Zentroaren eraikinak. Horrek pilotalekuko horma kanpoaldetik bistan geratzea suposatuko du. Horrela, herriko ondarea “zaintzea” dute helburu udaleko ohar batean adierazi dutenez.

Beheko solairua erabat argia izango da eta patio bat egingo dute, Txiki Otaegi kaletik sarbidea izateko. Atezaintza, jendeari harrera egiteko gela eta itxaroteko gunea egongo dira bertan.

Eraikinak beste hiru solairu izango ditu goian, Erdiko eskailera baten bidez lotuko direnak. Eskailera kristalez inguratuta egongo da. Horrela, Zelaieta parkera begira dagoen “argitasun handiko espazioa”

sortu gura dute. Lehenengo solairuan, irakasle-gelak, erabilera anitzeko aretoa eta biltegia egongo dira. Bigarren solairuan, zurezko haize eta hari instrumentu, gitarra eta piano ikasgelak jarriko dituzte, besteak beste. Azken solairuan, berriaz, alboka, akordeoi eta txistu ikasgelak kokatuko dituzte, beste batzuen artean.

Proiektuari EAJren eta PSEren aldeko botoekin eman diote behin betiko baietza udalbatzarrean

Proiektuari joan zen barietatean eman zioten behin betiko baietza PSE eta EAJren aldeko botoekin. EH Bildu abstenitu egin zen eta Hiri Ekimenak kontra bozkatu zuen. Proiektuaren aurrekontua 2.500.000 euro ingurukoa da, eta 18 hileko egikaritze-epea dauka.

# Bizkaiko gastronomia Euskaldunako mahaian

Eneko Atxak aurkeztutako proiektuaren ardatza da



Ekainean Eneko izeneko jatetxe berria ireki zuten Azurmendiren ondoan.

**ZORNOTZA** Joseba Derteano Euskalduna Jauregiko administrazio kontseiluak jatetxea kudeatzeko proposamen bi zituen esku artean, biak Zornotzako sukaldariarenak: Eneko Atxarena (Azurmendi jatetxea) eta Beñat Ormaetxearena (Jauregibarria jatetxea). Martitzen goizeko batzarrean ardura Eneko Atxaren Azurmendi Enea taldearen proiektuari ematea erabaki zuten.

Lehiaketara aurkeztutako proposamen biak “kalitate bikainekoak” direla azaldu dute ohar batean. Azurmendi Enearen proiektua Bizkaiko sukaldaritzaren tradizionalean oinarritzen da. “Bizkaiko gastronomiako errezeta tradizionalak

nabarmenak du helburu”. Horrek “elementu bereizgarria” eskainiko dio jatetxeari, eta Bizkaiko gastronomia nazioartean “indartzea” ere ahalbidetuko du.

Bizkaiko gastronomia nazioartean “indartzea” lortu dezake Atxaren proiektuak

Urtea amaitu arte Fernando Canalesek jarraituko du jatetxeko arduragaz. 2018ko urtaririlean eta otsailean azpiegiturak egokitzeko eta dekoratzeko lanak egingo dituzte.

# Aparkalekuak gehitu dituzte Azpiri eraikina bota ondoren

**ZORNOTZA** Joseba Derteano Ixer aparkalekuaren ondoan zegoen eta Azpiri izenagaz ezagutzen zen eraikina abuztuaren erantsi zuen udalak, eta dagoeneko amaitu dituzte hango oruberako aurreikusitako lanak. Alde batetik, Ixerrera sarbidea zabaldu dute. Orain, auto bi elkar gurutzatzeko espazio gehiago dago bidetik aparkalekurako sarre-raraino dauden metroetan. Bestetik, eraikina eraitsi du-

Bidetik aparkalekurainoko espazioa zabaldu dute, autoek gurutzatzeko espazio gehiago izateko

ten aldean baterian aparkatzeko hamar bat aparkaleku berri egin dituzte. Libre geratutako gainerako espazioan berdegune bat egin dute, herritarrei zuzenduta.

Eraikinak “oso gaizki” zeudelako hartu zuten eurak eraisteko erabakia, udalak ohar batean jakinarazi zuenez. Bi solairuko eraikinak ziren eta barruan bulego moduan erabilitako hainbat gela zeuden, udalaren esanetan gaur egun ezertarako erabiltzen ez zirenak.

# Estatuko delegazioa eta udala epaiketara

Ospital Kalen dauden pintada bi dira sorburua

**OTXANDIO** J.D. Espainiako estatuak Euskadin duen delegazioak Ospital Kalen dauden pintada bi garbitzeko eskatu zion Otxandioko Udalari orain hile batzuk. Pintada batean tortura salatzen da eta, bestean, euskal preso eta iheslarien euskal herriratzea eskatzen da. Udalak ezetz erantzun zion argudio bitan oinarrituta. Batetik, pintada horiek iradokitzen dituzten mezuek “ez dute

inor iraintzen” Urtzi Armendariz alkatearen ustez. “Adierazpen askatasuna dira eta udala adierazpen askatasuna bermatzeko dago eta ez horren kontra egiteko”. Bestetik, eraikin pribatua da, eta ez udalarena.

Ondorioz, Espainiako delegazioak administrazioarekiko auzo-prozesua jarri du martxan. Udalak ez du bere iritzia aldatu, epaiketaren prozedura onartu du.

# Zergak eta tasak, oro har, izoztu egingo dituzte


Frontoia erabiltzeko tasa da salbuespenetako bat

**MAÑARIA** J.D. 2018ari begirako zergak eta tasak, oro har, izoztea erabaki dute. Azken udalbatzarrean ordenantza fiskalen berrikusketa egin zuten eta erabaki horren berri eman zuten.

Zaborren inguruko tasagaz zer egin pentsatu barik zuten oraindino. Hori zen salbuespenetako bat. Erabaki bat hartu aurretik aurtengo diru bilketaren datuak jaso eta aztertu

gura dituzte. Frontoia erabiltzeagatik ordaintzen den tasa da moldatu duten gutxienetako bat. Herrian erroldatuta ez dauden mañariarrek beste ordainduko dute 2018tik aurrera. Aurten arte 10 euro ordaintzen zuten eta zerga berriak indarrean sartzean zortzi euro ordainduko dute, Mañarian erroldatutakoak berdina. Legeak ez du uzten herritik kanpokoei gehiago kobratzen.





# Praktikatu eta Bizizi

**639 400 786**

[www.durangaldea.blogspot.com](http://www.durangaldea.blogspot.com)

[durangaldea@aek.eus](mailto:durangaldea@aek.eus)

Durangaldeko berbalagunak

Antolatzaileak eta Litalak



Erakundeak



**praktikatu**





**IZURTZA** J.Derteano

Iaztik hona hazi egin da bakarririk dauden adin txikiko etorkinen kopurua, Aldundiko Gizarte Zerbitzuko iturriek onartu dutenez. Ondorioz, Zornotzan eurak hartzeko dagoen zentroak ezin ditu denak hartu. Egoera horren aurrean, gazte denei toki egiteko, Aldundiak azpiegitura gehiago jarri ditu martxan aurtengo urtean zehar. Esaterako, joan zen astean jakin zen Bizkaiko herri batean zentro berri bat ireki dutela. Durangaldean ere aurkitu daiteke beste adibide bat: Etxaburu dorrearen ondoan dagoen Izurtzako aterpetxea, hain zuzen.

Zornotzako zentrotik igarotzen dira lehenengo, eta, gero, beharraren eta kasuen arabera, beste gune batzuetara bideratu ditzakete. Aldundiaren jabetzako zen aterpetxea lehenago ere erabili izan dute urte batzuetan helburu berdineguz. 2007an ireki eta 2014an itxi egin zuten, urte hartan jaitzi egin zelako atzeritarren kopurua.

## Izurtzako aterpetxea gazte etorkinei irekita dago aurtengo apiriletik

Adin txikiko atzeritarren kopurua hazi egin delako zabaldu dute



Etxaburu dorrearen ondoan dagoen aterpetxean egoten dira adin txikikoak.

Iaztik hona kontrakoa izan da joera, eta aurtengoa ireki dute ateak. Apirilaz geroztik, adin txikiko etorkinak hartzen

ditu. Apirilean etorri ziren lehenak, eta abuztuaren beste batzuk gehitu zitzaizkien. Aldundia Izurtzako udalagaz hartu-ema-

netan jarri zen martxoan, aterpetxearen erabilera berriaren berri emateko. Gazteak Izurtzan errolatuta daude. Horrela, bes-

teak beste, gaixorik daudenetan Izurtzako osasun zentrori joan daitezke.

**Jaietan parte hartuz**

Aterpetxeako gazteak Aldunditik jarraitutako programari lotuta daude eta gizarteratzeko presatzen dituzte. Ildo horretatik, tokian tokiko herritarrekin

Jaietako ekintza baten baino gehiagotan parte hartu dute aterpetxean dauden gazteak

hartu-emanak sustatzen dira. Izurtzan esperientzia bat baino gehiago izan dute. San Joanetan txokolatea prestatu eta banatu zuten herritarren artean, eta jaietan patata-tortilla txapelketan parte hartu zuten. Antzerako ekitaldietan parte hartzeko gonbidapenak gustura hartzen dituztela azaldu dute udal arduradunek.

### Jubilatu, guraso eta etorkinentzat euskara ikastaroak

**ELORRIO** M. Zuazubiskar  
Elorrioko Udalak eta Abizari-AEK euskaltegiak herriko etorkin, jubilatu eta gurasoentzat euskara ikastaroak antolatu dituzte.

Hilabete honetan hasi eta ekainera bitartean emango dituzten ikastaroekin euskara ikastera doazen ikasleek oinarriko maila bat lortzea izango dute helburu. Udalak jakitera eman duenez, astean 4 ordukoak izango diren ikastaroak diruz lagunduko dituzte.

### Elorrioko liburutegiaren urtemuga ospatuko dute

**ELORRIO** M. Zuazubiskar  
1967an inauguratu zuten Udal Liburutegiaren 50. urteurrena ospatuko dute, gaur, Elorrioren.

Horretarako, udalak egitarau zabala antolatu du herriko plazan. 17:00etan, irakurketa eta marrazketa txokoak egongo dira, eta 6 urtez gorako umeek collage tailerra izango dute. 19:00etan, berriz, Shakti Olazolak *Irakurriz* ikuskizuna antzeztuko du.

Elorrioko Udalak herritarrei urteurren jaira hurbiltzeko gonbita luzatu die.



Liburutegia kalera aterako dute.

### Jabekuntza Eskolaren eskaintza berria

**ABADIÑO** I. E.  
Irailaren 19an hasi zuen udalak Abadiñoko Emakumeentzako Jabekuntza Eskolako ikasturte berriko izen-ematea, eta ikastaroak hasi baino 10 egun lehenago arte egongo da apuntatzeko aukera. Emakumeen topaketarako, formakuntzarako eta gogoetarako gunea da Jabekuntza Eskola, eta askotariko ikastaroak eskaintzen ditu. Udalaren [www.abadiño.org](http://www.abadiño.org) webgunean dago eskaintza osoa ikusgai.

### Bigarrenez lapurreta egin dute estankotan

**BERRIZ** M. Zuazubiskar  
Berrizko Etxebarria estankotan bigarrenez lapurreta egin dute hilabetearen.

Kepa Ortueta arduradunak jakitera eman duenez, astelehen gauean berriro lapurretan sartu zitzaizkien Iturritza kaleko dendan. "Etsita nago. Aurreko lapurretaren ostean segurtasun neurri zorrotzak hartu genituen", adierazi du arduradunak. Hala ere, berriro ere, dendan lapurreta egin dietela salatu du.

AHOLKULARITZA PROFESIONALA



# TABIRA

COLOR

BERRIKUNTZAK  
DITUGU

AZKEN BELAUNALDIKO  
PINTURETAN

PINTURA  
EKOLOGIKOETAN

ORBANEN  
KONTRAKO  
PINTURETAN

Ondo pasa jaietan!

ZATOZ GU BISITATZERA  
ETA INFORMATZERA

Montorretas Ind. 9-F Pab. DURANGO

Tel.: 946 217 911





Ezkerretik hasita, Pilar, Begoña eta Ricardo.

## “Garaigatik zuen maitasuna barneratu zigun amama Pilarrek”

Zubiaurre familiakoak dira Pilar, Begoña eta Ricardo Gutierrez

### **GARAI** Markel Onaindia

**Gerran erbestera ihes egin behar izan zuen Zubiaurre familiakoak dira. Pilar Zubiaurre eta Ricardo Gutierrez intelektualen bilobak. Euren izena daramate bik, eta antza ere nabarmena dute. Kultura, zainetan. Aita Leopoldo Gutierrez eta ama Mercedes Garcia-Urtiagaren errautesak ekarri dituzte Mexikotik Garaira.**

**Zer da Garai zuentzat? Zer oroitzapen duzue?**

**Pilar:** Amama Pilar oso gazte ginel hil zen, baina Garaigatik zuen maitasuna eta hona etortzeak ematen duen armonia barneratu zizkigun. Umetatik etorri izan gara hona, eta bera he-

men egoten zen beti. Irteerak egiten genituen, lagunak etxera gonbidatzen zituen, ipuinak irakurtzen zizkigun...

**Ricardo:** Hau gure arbasoen habia da, gure nortasuna. Beste herrialde batzuetan hazi arren, Garai gure istorio pertsonalen parte izan da beti. Eta gure etorkizunaren parte izatea ere gura dugu.

**Kulturatik asko edan duzue.**

**Ricardo:** Denok bizi dugu artea, nahiz eta profesionalki arte ederraren arloan lan ez egin. Bisualki alfabetatutako familia bat gara.

**Pilar:** Gauzak berdeak edo urdinak izateaz baino harago estimatze hori... Aitagaz beti joaten ginen kontzertuetara edo mu-

soetara. Bidaiatzen genuenean beti zegoen une bat arterako.

**Aita polifazetikoa zen, ezta?**

**Ricardo:** Historia, artea, filosofia interesatzen zitzaizkion. Baina, errefuxiatuak izaki, beharri-zanagatik, bizimodu bat eskainiko zion karrera bat egitea erabaki zuen, eta injineru sartu zen.

**Domekan, errautesak gorde aurretik ekitaldia egin zenuten, dantzari eta guzti.**

**Begoña:** Bai. Poema oso polit bat irakurri zen, Joseba Sarrionandiarena, eta abadeak ere oso ondo berba egin zuen.

**Pilar:** Udalak asko lagundu digu. Ekitaldi xume eta polit bat izan zen, hori baitzen gura genuena.

## Artzain Eguna ospatuko dute, bihar, Axpen

### **ATXONDO** M. Z.

Latxa eta Karrantzar Arrazetako Ardi Hazleen Elkartek (ACOL) antolatuta Artzain Eguna ospatuko dute, bihar, Axpen. 12:30erako Artzain-txakur Txapelketa antolatu dute. Eta, ostean, Bizkaiko Ardi Gaztaren txapelketa egongo da.

Antolatzaileek esan duteenez, goizean zehar gazta eta sagardoa dastatzeko aukera izango dute Axpera doazenek. Bestalde, 14:00etan plazan sari banaketak egingo dituztela jakitera eman dute.

## Euskara ikasi dutenentzako diru-laguntza

### **ZALDIBAR** I. E.

2016-2017 ikasturtean euskara ikasten aritu diren zaldibartarrei zuzenduriko diru-laguntza jasotzeko eskariak aurkezteko epea hasi du Zaldibarko Udalak. Urriaren 16ra arte aurkeztu daitezke eskariak udaletxean. Ikastaroa iaz egin izana, Zaldibarren erroldatuta egotea eta gutxienez %80ko asistentzia egiaztatzea dira diru-laguntza jaso ahal izateko baldintza nagusiak.

### SEI HANKAKO MAHAIA

**JULIAN RIOS SANTIAGO**  
SQ-2D



### Hiru urte zain

2015ean Durangoko emakume batek umeentzako jolasgune estaliak eskatu zituen. Horretarako, datu hauek eman zituen: urtean 180 egunetan euria egiten du, eta udalerrian erroldatutako 3.931 hurrek ez daukate norra jo eguraldi txarra egiten duenean. *Change.org* bidez sinadurak eskatu, eta mordoa jaso zituen.

Hau ere esaten zuen idatzian: herrian hamaika haur parke egon arren, ikastetxe-takoak eta Tabirako igerilekuetakoak ez daude beti erabiltzeko moduan. Beraz, 12 urte arteko ia 4.000 haur horiek gainerako zortzi parkeetan banatu behar dira. Horri gehitu behar zaio parkeetako batzuk ez daudela ondo.

Bada, kontuak buelta asko eman ditu. Alde batetik, haur parkeetako bi ziren estaltzekoak: Zabalarra eta Landako ikastetxeetakoak. Sarbide eta ordutegi arazoak bazeuden ere, arrazoi nagusi bat zegoen horiek estaltzeko: ikastetxe-takoak estaliz gero, aukera zegoen Eusko Jaurlaritzak gastuaren %60 ordaintzeko. Azkenean, ikastetxe batekoa baino ez da estali, eta, gainera, Eusko Jaurlaritzatik diru-laguntzarik jaso barik. Udalak ordaindu du guztia.

Hiru urte geroago, ia haur parke bat dugu estalita, eta parke horretako eta beste batzuetako zorua zein txin-txaunak hondatuta daude. Azkenean, haur asko jolas-teko aukerarik barik geratu dira, gurasoak jolasgune gehiagoren zain eta ikastetxea desengainua hartuta, emaitza ez delako izan eurek nahi zutena.

*\*Erredakzioan itzulia*

## Bisita gidatuak Zaldibarren eta Garain

**DURANGALDEA** > Durangaldeko paisaiak gertutik ezagutzeko aukera egongo da, asteburuan, Gerediaga elkartearen eskutik. Zapatuan, herri bateko paisaia nola eraldatu daitezkeen erakutsiko dute Zaldibarren. Domekan, berriz, 300 arditik gora bildu ditzakeen artea bistaratzeko aukera egongo da Garain.

## Produktu ekologikoen azoka, bihar, Durangon

**DURANGO** > Marisatsak, produktu ekologikoen ekoizle eta kontsumitzaile elkarteak, VII. Nekazaritza Ekologikoa-ren Azoka antolatu du bihar goizerako. Andra Mariko arkupean ipiniko duten azokan, Durangaldeko ekoizleen eta kanpotik etorritakoen produktuak erosi eta dastatzeko aukera egongo da.

## Aire ahizpak Eituako jaietan, zapatuan

**BERRIZ** > Asteburuan San Fausto jaiak ospatuko dituzte Eitua auzoan. Zapatuan, 18:00etan, Donien Atxa jarrita hasiko dituzte jaiak, eta, 20:00etan, Aire ahizpek kontzertua eskainiko dute. Domekan, 12:00etan, meza egongo da eta, ondoren, Iremiñe dantza taldearen saioa eta bolo jokoa egongo dira.

### **IRITZIA**

astekaria@anboto.org  
asteartea 17:00ak arteko epea

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helaratzeko helbideak:**

Bixente Kapanaga 9, 48215 - lurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

**DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO**

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tariteak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoak eta emandako iritzien erantzukizunik.

UDAKO
3. ARGAZKI LEHIAKETA

# Eman zure botoa udako argazki lehiaketan

## Urriaren 2tik 15era

Bozkatu [www.anboto.org](http://www.anboto.org) webgunean

ANTOLATZAILEA

LAGUNTZAILEAK





Aitor Onaindia Bereziartua | Basoa Fundazioko lehendakari ordea | Durango, 1976

# “Euskaldunek basoagaz betidanik izandako lotura pentsamolde berri batek ordezkatu du”

‘Baso-paisaia eta haren kudeaketa’ ibilbide gidatua zuzenduko du Aitor Onaindiak, urriaren 7an, Zornotzako Euba auzoan

> **BERBAZ** Aitziber Basauri

Durungaldeko paisaia osatzen duten basoen sortzaile eta kudeatzaile nagusiak dira baso-jabeak edo kudeatzaileak eurak. Eragin zuzena dute gure inguruko paisaian basoko lanek. Lan horiek ezagutzeko, ‘Baso-paisaia eta haren kudeaketa’ ibilbide gidatua antolatu dute biharko, Zornotzako Euba auzoan. Europako Ondarearen Jardunaldien barruan antolatu du Urkiola Landa Garapen Elkarteak Basoa Fundazioagaz batera. Aitor Onaindiak Basoako lehendakariordeak gidatuko du ibilbidea eta izena emateko landa garapen elkartera jo daiteke.

**Basoek ezinbesteko garrantzia hartu dute gure paisaian? Durungaldean lurraldearen erdia baino gehiago da basoa. Eskualdean eta, oro har, Euskal Herrian lotura estua egon da eta dago basoaren eta gizartearen artean. Gizartearen eta kulturaren ondorio da gaur egungo paisaia. Paisaia guk sortutakoa da, guk aldatutakoa. 1950eko edo antzinagoko argazkiak hartuz gero, garai batean hemen basorik ez zegoela ikusiko dugu.**

**Basorik gabeko paisaia izan dugu aurretik gure inguruan? Askok uste du Euskal Herrian pinuak hariztiak ordezkatu zituela. Ez da egia. Pinuak landa eta soloak ordezkatu zituen. Euskal Herrian inoiz ez da egon baso zerraturik. Afrikako sabanaren edo Extremadurako dehesaren antzerako paisaia izan dugu XX. mendera arte, zati handi batean. Nekazaritza eta abeltzaintza asko hedatu ziren, eta gizakiaren esku-hartze horrek baso eta arboladi ia guztiak desagerrarazi zituen. Desamortizazio sasoian, adibidez, Berriz osoan ez zegoen tantai bakarra; nekazaritza eta abeltzaintza herri osora zabaldu ziren.**

**Industrializazioak aldatu zuen paisaia hori?**

Bai. Euskal Herrian eta, oro har, Europan oso arbola gutxi-gaz heldu ginen XX. mendera. Industrializazioagaz, hainbeste hedatutako baserri inguru hori



“**Gizartearen eta kulturaren ondorio da gaur egungo paisaia. Guk sortutakoa da”**

herrietan eta fabrika inguruetan batzen hasi zen. Horren eraginez, solo eta landak ordezkatu zituen pinuak —nahiko denbora laburrean etekina ateratzea ahalbidetzen zuen, lan askorik eskatu gabe—. Haritzak eta beste hainbat espezie bertan behe-utzi ziren, eta zabalduz joan ziren. Pinua etorri zelako eta landatu zen tokietan landatu zelako ditugu beste toki batzuetan haritzak eta bestelako arbolak.

**Basoen garrantzia eta gizarteari ekarritako onurak ezagutarazteko lan egiten du Basoa Fundazioak. Zenbateko garrantzia dute basoek?**

Landaretza duten ekosistemen barruan, basoa da eboluzio gorenaren izan dezakeena, eta gizarteak erabiltzeko zerbitzu eta

produktu asko sortzen ditu. Klima eta lur oso aproposak ditugu basorako, eta horrexegatik izan dugu euskaldunok lotura oso estua beti basoagaz. Euskal Herriaren %60tik gora da basoa; are gehiago eskualde batzuetan.

**Jabetzen da gizarte basoen garrantzi horretaz?**

Une honetan ez, eta hor sortzen da arazoa. Euskal gizartearen urbanizatu egin da, asko. Pentsamolde kaletarrak bihurtu gara. Baserriek gero eta gehiago dute txalet itxura. Oстера, landak, basoak... galtzen ari dira. Pentsamolde urbanoaren aldeko desoreka bat bizi dugu. Euskaldunek basoagaz betidanik izandako lotura pentsamolde berri batek ordezkatu du: basoa utzi egin behar dela, ezin dela ukitu. Egur asko sortu duen eta ondo erabili duen gizartearen izatetik, egur gutxi sortu eta txarto erabiltzen duen kultura batera pasatu gara. Horri buelta ematen hasi gara orain.

**Oreka bat lortu behar da?**

Hori da bidea. Gizartearen nahien eta paisaiaren aitzakian kalte handiak egin daitezke eta

“**Pentsamoldez kaletarrak bihurtu gara. Baserriek gero eta gehiago dute txalet itxura”**

oreka lortu beharra dago. Baso-jabe edo baso-kudeatzaileari —herri basoak ere badaude hor— basoa aldatuaraziz gero, litekeena da errendimendu ekonomikoa murriztea, lan gehiago sortzea, ardura gehiago... Gizarte osoarentzat irabazi edo onura ekarri dezake aldaketa horrek, baina gizarte horren zati txiki baten gain uzten dira ardurak. Gainera, derrigorrez. Arazoa ez da helburua, horretara heltzeko bideak baizik.

**Zein bide jorratu behar dira?**

Baso-jabe eta kudeatzaileekin akordioak lortzen saiatu behar da. Basoak egurra ematen digu, eta, horrez gain, ura iragazten du, CO2a arintzen du, paisaia sortzen du, txorientzako habiak sortzen ditu... Gizartearentzat

onuragarri diren zerbitzu eta produktu hauek, baina, ezin ukituzko balioak dira. Ez dute etekin ekonomikorik ematen. Perretxikotarako, paisaia bat sortzeko, aisialdirako... basoa sortzera derrigorrezkoak irtenbide bako amildegira darama. Inork ez du hori gura. Badira bideak horri aurre egiteko: hobariak eskaini, diru-laguntzak... Frantzian ingurumen-zerbitzuagatik ordainsaria dago.

**Zein izan beharko litzateke etorkizuneko paisaia?**

Euskal Herria txikia da eta jende asko bizi gara. Elikadura edo burujabetza energetikoa gura badugu, baina, aldi berean, biodegradatutakoak sustatu, ez dago denetarako tokirik. Ez dut txarto ikusten erreserba integralak zehaztea, baina interbentzioa egongo den basoak ere behar dira. Basoetatik ateratzen duguna baino energia gehiago atera daiteke, adibidez. Dena den, jabeak eta kudeatzaileak kontuan hartu behar dira eta ordainsari bat eman. Basoei erabilera bat ematera joan beharko genuke, mantendu egin beharko genituzke. honetarako.







# DURANGOKO

**Urriak 6, barikua**

**19:00** Etorkizuneko Bizkaia promesen XXXII. Cafés Baqué esku pilota txapelketa Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan (finalerdiak).

**Urriak 7, zapatua**

**08:00** Perretxikoen bilketa. Irteera Ezkurditik.

**09:00-14:00** VII. Durangoko Azoka ekologikoa Andra Marian.

**10:30** Esku pilota jaialdia San Fausto pilotalekuan.

**17:00** Errugbi partidua Arripausetan. Ohorezko B maila. Durango Nissan Gaurisa RT - Real Oviedo Rugby.

**17:00** Umeentzako atletismoa: jauziak, lasterketak eta jaurtiketak Ezkurdin.

**17:45** Gazteen arteko atletismo erronka eta DKTKo atleten erakustaldia Ezkurdin.

**18:00** XXXIV. San Fausto zesta-punta txapelketa Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan (finalaurrekoak).

**18:00** Nesken saskibaloï partidua Landako Kiroledegian: Tabirako Baqué - Lagunak.

**20:00** Antzerkia San Agustín Kultur Gunean: "Hambre", La Liquida Teatroa. Prezioa 8 €.

**Urriak 8, domeka**

**09:00** San Fausto XXVIII. Calva txapelketa Muruetatorren.

**10:00** Durangoko XII. Duatloi herrikoia Santa Anatik. Informazio gehiago: [www.mugarratt.com](http://www.mugarratt.com)

**11:00** XVIII. Mikologia erakusketaren edizioa, XVII. Argazki mikologikoen lehiaketa eta Perretxikoak sailkatzeko 16 urtetik beherakoentzako XVII. Lehiaketa Landako Gunean.

**12:00** XXXIV. San Fausto zesta-punta txapelketa Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan (finalaurrekoak).

**12:00** 3. mailako areto-futbol partidua Landako Kiroledegian: CD Sasikoa Durango - CD Aretxabaleta.

**Urriak 9, astelehena**

Mus, tute, briska, igel, billar eta ping-pong txapelketen hasiera nagusientzat. Izena ematea doan izango da, urriaren 2tik 7ra arte, adinekoentzako udal egoitzako kafetegian. Plazak zozketa bidez emango dira urriaren 8an.

**Urriak 10, martitzena**

**17:00** "Familian euskaraz jolasean" Ezkurdin.

**Urriak 11, eguaztena**

**17:00** "Familian euskaraz jolasean" Ezkurdin.

**19:30** Kalejira Santa Anatik txosnagunera.

**20:00** Txupinazoa txosnagunean.

**21:00** Kontzertua txosnagunean: TRES 41, ALERTA eta STRONGER TOGETHER.

**Urriak 12, eguena**

**TXUPINAZOA ETA JAIEN HASIERA** Durango Rugby Taldearen eguna. Mozorroa: 50eko hamarkada. V. Argazki lehiaketaren hasiera. Argazkiak aurkezteko epea urriaren 23an, 24:00ak arte, [f.stop.durango@gmail.com](mailto:f.stop.durango@gmail.com) emailera bidaliz. [www.f-stopdurango.org](http://www.f-stopdurango.org)

**11:00** IV. Durango Uriko areto-futbol saria Landako kiroledegian: CD Sasikoa - Elorrioko Buzkintza.

**12:00-13:00** Durango Irratian lehiaketa (107.8 FM). Gaia: San Fausto jaiak. Sarien zozketa. 94 621 56 07 edo 94 621 55 99 zerbakietara deitu eta parte hartu.

**12:00** Patxikotxuri ongi etorria San Fausto auzoan. Ondoren, kuadrillen jaitsiera udaletxeko plazaraino Sugarri fanfarrea eta buruhandiek.

**12:00** Erraldoiak eta buruhandiak Alde Zaharretik.

**12:00** Haurrentzako jolasak txosnagunean.

**13:00** Txupinazoa Durangoko odol-emileen "Mugarra" elkartearagaz udaletxe plazan. Gora San Faustoak!

**13:30** Begi argiak abesbatzaz kalejira Alde Zaharretik.

**13:30** Oilasko errearen dastaketa Andra Marian.

**17:00** Animazioa trikitixagaz pertsona nagusien egoitzetatik.

**17:00** Entziero txikia Santa Anan. (Euria bada, Landako Gunean).

**17:30** Dirt Jump eta Trialsin akrobatikoen ikuskizuna Ezkurdin. (Euria bada, Landako Gunean).

**17:30** Kuadrillen arteko grand prix: bigantxekin eta bigantxarrik gabeko jokoak zezen plazan. Sariak irabazleentzat. Izen-ematea Pinondo Etxean. Ondoren, bigantxak. Sarrera: 3€.

**18:00** Kalejira Batukandragaz Alde Zaharretik.

**18:00** XXXIV. San Fausto zesta-punta txapelketa Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan (finalaurrekoak).

**18:30** Vaiven circo taldearen ikuskizuna "Des-Habitat" Aurora Abasolo Musika Eskolako parkean. (Euria bada, Ezkurdiko karpan).

**18:50** Dantzaldia San Fausto auzoan.

**19:00** Erromeria Luhartz taldeagaz Andra Marian.

**20:00** Erdi Aroko Kalejira Lurte taldeagaz Ezkurdin hasita.

**21:00** Zezen suzkoa Ezkurdin.

**22:00** Erromeria Luhartz taldeagaz Andra Marian.

**Urriak 13, barikua**  
**SAN FAUSTO**

**7:00** Diana txistulariekin.

**7:30** Zezenak Dira dultzaineroekin.

**11:00-14:00** Txu-txu tren Landako Gunean.

**11:00-14:00** Txiki park-a Ezkurdin. (Euria bada, Landako Gunean).

**11:00-14:00** Jumping, ohe elastikoak eta jolasak Landako Gunean.

**11:00** Paella txapelketa txosnagunean. 14:30 sari banaketa.

**11:00** Paella txapelketa San Fausto auzoan. Parte-hartzaileei arzoa emango zaie. Izen-ematea: 11:00etan. Sari banaketa 14:00etan.

**11:00** Meza nagusia San Fausto elizan.

**12:00-13:00** Durango Irratian lehiaketa (107.8 FM). Gaia: San Fausto jaiak. Sarien zozketa. 94 621 56 07 edo 94 621 55 99 zerbakietara deitu eta parte hartu.

**12:00** Kalejira txistulariekin.

**12:30** Txalaparta, ohorezko aurrezkoa eta artopilen banaketa udaletxe plazan. Ondoren, Durangoko dantzariak. (Euria bada, Andra Mariako elizpean).

**16:00** Poniak San Fausto auzoan.

**16:00-19:00** Txu-txu tren Landako Gunean.

**16:00-19:00** Txiki park-a Ezkurdin. (Euria bada, Landako Gunean).

**16:00-19:00** Jumping, ohe elastikoak eta jolasak Landako Gunean.

**17:00** Mañaria errearen jaitsiera Tabiratik hasita.

**17:30** Txokolatada eta haurrentzako jolasak San Fausto auzoan.

**18:00** Zesta-punta Jai Alai World Tour Masterren finalerdiak Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan.

**18:00** Antzerkia eta malabareak Trotamundos taldeagaz "Historias de un baúl" Aurora Abasolo Musika Eskolako parkean. (Euria bada, Landako Gunean).

**19:00** Aiko erromeria Ezkurdin.

**19:30** Bertzi Jazz-Bandaren kontzertua Andra Marian.

**21:00** Elektrotxaranga Alde Zaharretik.

**21:00** Kontzertua txosnagunean: STORM, ESKEAN KRISTO eta ZEINKE.

**21:30** Rap feminista LA FURIAgaz Andra Marian.

**22:00** Kalejira Ardoa barrura fanfarriagaz San Fausto auzoan.

**Urriak 14, zapatua**

**7:00** Diana txistulariekin.

**7:30** Zezenak Dira dultzaineroekin.

**10:00** XXVI. Marmitako txapelketa Landako Gunean. Izen-ematea eta informazioa Pinondo Etxean irailaren 28ra arte.

**11:00** Astronomia eskulan tailerrak Ezkurdin. Suziri txikiak egin eta konstelazioak irudikatu eta bilatu. (Eguraldi txarragaz Plateruen plazan).

**11:00-13:00** Zumba family Ezkurdin.

**11:00-13:00** Haurrentzako tailerrak Ezkurdin. (Euria bada, San Antonio ikastetxean).

**11:00-14:00** Ur jolasak Ezkurdin. (Euria bada, haur parkea San Antonio ikastetxean).

**11:00-14:00** Familientzako antzerki instalazioa "Micro-Shakespeare" Laitrum taldearen eskutik Ezkurdin. (Euria bada, Andra Marian).

**12:00** Kalejira txistulariekin.

**12:00-13:00** Durango Irratian lehiaketa (107.8 FM). Gaia: San Fausto jaiak. Sarien zozketa. 94 621 56 07 edo 94 621 55 99 zerbakietara deitu eta parte hartu.

**12:00-18:00** Graffiti erakusketa Azoka kalean.

**13:00** Bits jaia Ezkurdin. (Euria bada, ez da egingo).

**14:00** Gazte eguneko bazkaria Andra Marian.

**16:00-19:00** Haurrentzako ur jolasak Ezkurdin. (Euria bada, haur parkea San Antonio ikastetxean).

**16:00-19:00** Familientzako antzerki instalazioa "Micro-Shakespeare" Laitrum taldearen eskutik Ezkurdin. (Euria bada, Andra Marian).

**16:00** Eir Band taldearen musika ikuskizuna Landako Gunean.

**17:00** Tortilla txapelketa San Fausto auzoan.

**17:00** Arte martzialen kalejira eta erakustaldia Alde Zaharretik.

**17:30** Euskal Herriko Errekortariak (errekorteak, jauziak, iskin egitea, "bañera toreroa", kulunka, quad toreroa...) zezen plazan. Sarrera: 5€.

**17:30** Gazte eguneko olinpiadak txosnagunean.

**18:00** Mutilen saskibaloï partidua Landako Kiroledegian: Tabirako Baqué - Hernani Tecnun SD.

**18:00** XXXIV. San Fausto zesta-punta txapelketaren finalak Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan.

**18:00** Potxin eta Patxin Pailazoak "Piramideen bila" ikuskizunagaz Aurora Abasolo Musika Eskolako parkean. (Euria bada, San Antonio ikastetxean).

**18:00** Senegaleko erritmoak M'Lomp elkartearen kalejira Andra Mariatik hasita.

**19:00** Suziri handien jaurtiketa eta txokolatada Zuhatzola parkean. (Euria bada, ez da egingo).

**19:00** Antzerki saio laburra: "La salud al mejor precio" Ezkurdin.

**19:30** Elektrotxaranga txosnagunean.

**20:00** Festapote San Fausto auzoan.

**21:00** Behaketa astronomikoa Zuhatzola parkean. (Euria bada, ez da egingo).

**21:00** Zezen suzkoa Ezkurdin.

**21:30** Su artifizialak tren-kotxera zaharretan.

**22:00** Diskodantza San Fausto auzoan.

**22:00** Kontzertua txosnagunean: Potato eta Priscilas Band.

**AMAYA**  
AUTOEN KONPONKETAK S.L.

UAI, 1 industrigunea (Orozketa errepidea)  
48215 IURRETA / Bizkaia  
126 Posta Kutxa Durango

Tel.: 946 812 123 / Faxa: 946 203 818  
e-maila: [oficina@amayaautoreparaciones.com](mailto:oficina@amayaautoreparaciones.com)  
[www.amayaautoreparaciones.com](http://www.amayaautoreparaciones.com)

**ARRIBIDE**  
GASOLINDEGIA

Arriandui Indus. P1 - IURRETA  
Tel.: 946 818 381  
[estacionservicio@arribide.com](mailto:estacionservicio@arribide.com)

[www.arribide.com](http://www.arribide.com)

**CHAVES**

TAPIZAK  
MOKETAK  
ALFONBRAK  
GORTINAK

LARRUKIAK  
LANERAKO BABES-JANTZIAK  
INDUSTRIAKO HORNIGAIK

DENDA ETA ERAKUSKETA:  
Erretentxu, 28 behea  
DURANGO

Tel.: 946 811 180  
Faxa: 946 200 938

**Azkonizaga**

**Edari banaketa**  
GARAGARDOAK · ARDOAK · LIKOREAK  
ESNEA · URA · FRESKAGARRIAK

Ortuzar, 1 Izurtza (Bizkaia) Tel: 94 681 06 52 / 615 78 55 58  
[azkonizaga@azkonizaga.com](mailto:azkonizaga@azkonizaga.com)

**AGIRREZABAL**  
ELEKTROTRESNAK

J.A. Abasolo, 10 DURANGO  
[agirrezabal.e@hotmail.com](mailto:agirrezabal.e@hotmail.com)  
Tel. / Faxa: 946 202 284



# JAIEN EGITARAUA

**22:30** Kontzertua Andra Marian: Skakeitan.

**23:00** Nuevo talisman orkestra Ezkurdin.

**Urriak 15, domeka**  
**UMEEN EGUNA**

**7:00** Diana txistulariekin.

**7:30** Zezenak Dira dultzaineroekin.

**10:00-13:00** San Fausto XLIV. haur marrazki lehiaketa San Fausto auzoan. Izen-ematea: 10:00-12:00. Adina: 6 urtetik 17ra.

**11:00-14:00** Haur parkea Ezkurdin. (Euria bada, San Antonio ikastetxean).

**11:00-14:00** Guay paut, ohe elastikoak eta jolasak Aurora Abasolo Musika Eskolako parkean. (Euria bada, Landako Gunean).

**11:00-13:00** Xake txapelketa umeentzat Andra Marian. Aldibereko partidak eta itsuan.

**11:30** Ipuin kontalariak ingelesez 3-8 urte bitarteko umeentzat Ezkurdin.

**11:30** Bizikletaren Jaia: - Ibilbidea bidegorritik familia osoarentzat (5-9 bitarteko neska mutilekin). - Mountain Bike ibilbidea (10-14 bitarteko neska-mutilentzat). Irteera Santa Anatik. Bizikleta eta kaskoa eraman behar da. Parte-hartzaileen artean sariak zozkatuko dira. (Euria bada, ez da egingo).

**11:45** Tabira Musika Bandak emanaldia eskainiko du J.M. Barandiaran egoitzan.

**12:00-13:00** Durango Irratian lehiaketa (107.8 FM). Gaia: San Fausto jaiak. Sarien zozketa. 94 621 56 07 edo 94 621 55 99 zenbakietara deitu eta parte hartu.

**12:00** Kalejira txistulariekin.

**12:00** Patxikotxuren kalejira Wado Kan Karate-Ninjutsu kirol elkarteagaz Ezkurditik udaletxeraino.

**12:30** Txupinazo txikia Wado Kan Karate-Ninjutsu Kirol elkarteagaz udaletxe plazan.

**13:00** "Durango Uria" XVII. margo lehiaketaren sari banaketa Ezkurdiko erakusketa aretoan.

**13:00** Kontzertua: "Pelikulen Jatorrizko Soinuak" Tabira Musika Bandagaz Andra Mariako elizpean.

**14:00** Nagusientzako bazkaria Landako Gunean orkestrak girotua.

**16:00-19:00** Haur parkea Ezkurdin. (Euria bada, San Antonio ikastetxean).

**16:00-19:00** Guay paut, ohe elastikoak eta jolasak Aurora Abasolo Musika Eskolako parkean. (Euria bada, Landako Gunean).

**17:30** Behi-futbola: kuadrilen arteko futbol partiduak. Izen-ematea Pinondo Etxean. Ondoren, bigantxak. Sarrera: 3€.

**18:00** Haur dantzaldia: "Bidaia ezezaguna" Xilipurdi Antzerkiaren eskutik Ezkurdin.

**18:00** Zesta-punta Jai Alai World Tour Master series finalak Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan.

**19:30** "Tutto Carra" Rafaela Carra tributua Andra Marian.

**Urriak 18, eguaztana**

**12:00** Elkartruketako ikasle arteko Herri Kirolen erakustaldia Ezkurdin. (Euria bada, Andra Marian).

**18:00** "Las guerras de Banderizos en el Duranguesado" hitzaldia Kuruzesantu Museoa. Hizlaria: Jon Andoni Fernández de Larrea (EHUko irakaslea).

**Urriak 20, barikua**

**09:00** "Ezagutu Durango eta bere ingurua" nagusientzako mendi ibilaldia. Irteera udaletxe plazatik. Ibilbidea: Durangoko Udaletxe plaza, lurreta, Ertzille, Santamaña, Gaztañatza, Azkorra (San Kristobal), Goiuria (Sarasarte), Saldai (Uren batzea), lurreta, Durango.

**11:00-19:30** Birziklapen Komunikazio Kanpainaren Stand informatiboa Ezkurdin.

**17:00** Gurutze Gorriaren ate irekien jardunaldiak Ezkurdin. Simulazioa 19:00etan. (Euria bada, Landako Gunean).

**18:00** Tortilla txapelketa txosnagunean eta Bertso Rap emanaldia. 20:00etan sari banaketa.

**18:30** Antzerkia eta umorea: El Gran Dimitri eta bere ikuskizuna "Cirkusz Rupt" Aurora Abasolo Musika Eskolako parkean. (Euria bada, Ezkurdiko karpian).

**19:30** Ekialdeko dantzen erakustaldia Khuzayma elkarteagaz Andra Marian.

**21:00** Kontzertua txosnetan: Eat My Fear, Genderlexx, Godoys Wonderers eta Zoo.

**22:00** Asier Bilbaogaz ikuskizuna Andra Marian.

**22:30** Bertsolariak San Agustin Kultur Gunean: Andoni Egaña, Unai Iturriaga, Etxahun Lekue, Oihana Iguaran, Jesus Mari Irazu eta Amets Arzallus. Gai-jartzailea: Jon Zaldúa. Gonbidapen zenbakituak San Agustineko leihatilan urriaren 3tik aurrera eta leku guztiak bete arte.

**Urriak 21, zapatua**  
**MOZORRO EGUNA**

**7:00** Diana txistulariekin.

**7:30** Zezenak Dira dultzaineroekin.

**10:30** Xake txapelketa federatu eta federatu gabeentzat Ezkurdin. Izen-ematea txapelketa hasi baino ordu erdi lehenago.

**11:00** Nekazaritza azoka Ezkurdin.

**11:00** Umeentzako mozorro tailerra Andra Marian.

**11:00-19:30** Birziklapen Komunikazio Kanpainaren Stand informatiboa Ezkurdin.

**11:30** Haurrentzako puzgarriak txosnagunean.

**12:00** Kalejira trikitilariekin Txiri Txiri taldearen eskutik.

**12:00** Patata tortillaren X. txapelketa Landako Gunean. Laguntzailea: Dendak Bai eta bapobapo.com (etxera eramateko janaria on line).

Mailak: 15 urtetik behera / 16 urtetik gorakoak. Izen-ematea eta informazioa: Pinondo Etxean urriaren 2tik 17ra. Plaza mugatuak.

**12:00-13:00** Durango Irratian lehiaketa (107.8 FM). Gaia: San Fausto jaiak. Sarien zozketa. 94 621 56 07 edo 94 621 55 99 zenbakietara deitu eta parte hartu.

**12:30** Euskal Selektzioaren gurgildun aulkien padel egokituaren erakustaldia, Landako kiroldegian.

**13:00** Haurren mozorro-desfilea eta sari banaketa Andra Marian.

**14:30** Elkartasun bazkaria txosnagunean.

**17:30** 16 urtetik beherako errekortari gazte promesen txapelketa zezen plazan. Ondoren, bigantxak. Sarrera: 3€.

**18:30** Taldekako mozorro desfilea Madalenatik Andra Mariraino. Bukaeran sari zozketa. Izen-ematea: urriaren 2tik 17ra Pinondo Etxean. (Euria bada, Andra Marian).

**18:30** Kalejira Sugarri fanfarreagaz Madalenatik.

**19:00** Gora ta gora antzerki taldearen komedia dramatikoak: "No hay mal que por bien no venga" San Agustin Kultur Gunean. Doaneko gonbidapen zenbakituak San Agustineko leihatilan urriaren 10etik aurrera eta leku guztiak bete arte.

**19:00** 3. mailako areto-futbol partidua Landako Kiroldegian: CD Sasikoa Durango - Muskiz AF.

**19:00** Kontzertua Txapito Guzman eta Ibarrako Langostinuek Txosnagunean.

**20:00** DJ Unai Goikolea Andra Marian.

**21:00** Zezen suzkoa Ezkurdin.

**21:30** Animazioa Alde Zaharretik Ghanako Txarangagaz.

**22:00** "Momo" Queen taldeari tributua Andra Marian.

**22:00** Luhartz taldearen emanaldia txosnagunean.

**23:00** Vulcano orkestra Ezkurdin.

**00:00-03:00** Alkoholemia kontrolaren stand informatiboa Kurutziaga kalean.

**Urriak 22, domeka**  
**INGURUGIROAREN EGUNA**  
**Zaindu maite duzun hori**

**7:00** Diana txistulariekin.

**7:30** Zezenak Dira dultzaineroekin.

**10:00** Nesken lehen mailako San Fausto VI. Padel txapelketako finala Landako kiroldegian.

**11:00** Mutilen lehen mailako San Fausto VI. Padel txapelketako finala Landako kiroldegian.

**11:00** Haur parkea Ezkurdin. (Euria bada, Landako Gunean).

**11:00** Haurrentzako tailerrak Ezkurdin ASEBI elkarteagaz (Espina Bifidoa eta Hidrocefalia Bizkaia Elkarteak). (Euria bada, Landako Gunean).

**11:00 - 14:00** Haurrentzako birziklatutako material tailerrak "Planetaren ordua" Ezkurdin. (Euria bada, Landako Gunean).

**11:00** Ohe elastikoak, zezen mekanikoa eta jolasak Landako Gunean.

**12:00-13:00** Durango Irratian lehiaketa (107.8 FM). Gaia: San Fausto jaiak. Sarien zozketa. 94 621 56 07 edo 94 621 55 99 zenbakietara deitu eta parte hartu.

**12:00** Kalejira txistulariekin.

**12:00** Kalejira Durangoko Orfeoiagaz Alde Zaharretik.

**12:00** Poniak eta zaldiak Landako Gunean parkean. (Euria bada, ez da egingo).

**12:00** Kalejira Bilbotarrak taldeagaz Alde Zaharretik.

**12:00-14:00** Arku-tirorako gunea Landako Gunean parkean. (Euria bada, Landako Gunean).

**12:30** Herri kirolak Ezkurdin.

**12:30** Padel World Tour erakustaldia Landako kiroldegian.

**13:00** Bilbainadak Bilbotarrak taldeagaz Andra Marian.

**16:00 - 19:00** Haurrentzako birziklatutako material tailerrak "Planetaren ordua" Ezkurdin. (Euria bada, Landako Gunean).

**17:00** Kalejira Ramon Burgos y su mariachi los charros Alde Zaharretik.

**17:30-19:00** "Danok dantzara" L'Atelieregaz. Break dance, funky eta hip-hop tailer parte-hartzaileak Ezkurdin.

**18:00** Txokolatada txosnagunean jaiak agurtzeko.

**18:00** Ramon Burgos y su mariachi los charros-en emanaldia Andra Marian.

**18:30** Kalejira Irulitza fanfarreagaz Alde Zaharretik.

**18:30** "Rezikletas" ikuskizuna Turukutupak taldeagaz Santa Ana Plazan. (Euria bada, Landako Gunean).

**19:30** Patxikotxuri eta jaietako esateko kalejira udaletxeko plazatik hasita eta tren-kotxera zaharretaraino.

**20:00** Jaien bukaera su artifizialekin tren-kotxera zaharretan.

**Urriaren 28, zapatua**

**17:00** Errugbi partidua Arripausuetan. Ohorezko B maila. Durango Nissan - Gaurisa Rt - Eibar RT.

**18:00** Gizonezkoen saskibaloia partidua Landako kiroldegian: Tabirako Baqué - Avia Zizur Ardoi.

**III. Durangoko Gau Krosa** (Night Urban Race)

**19:00** Gau Kros Txikia (Umeentzako lasterketak) Santa Anan.

**20:00** Gau Krosa Santa Anan. [www.durangaldearunning.com](http://www.durangaldearunning.com)

**19:00** "Herejia" kontzertua Kurutze Santu Museoa.

**20:00** XXIII. Txistu kontzertua Landako Gunean.

**21:00** "Herejia" kontzertua Kurutze Santu Museoa.

**Urriaren 29, domeka**

**51. UMEEN EUSKAL JAIA**

**12:00** Talde guztiak merkatu plazan elkartuko dira, eta ondoren kalejira egingo dute.

**13:00** V. Argazki txapelketaren sari banaketa San Agustin Kultur Gunean sarreran.

**17:00** Alardea dantza taldeekin Ezkurdin. (Euria bada, Landako Gunean).

**Urriaren 31, martitena**

**21:30** Kontzertua: Ara Malikian "La increíble Historia de Violín" Landako Gunean. Sarreraren salmenta: [www.ara-malikian-durango.eventbrite.es](http://www.ara-malikian-durango.eventbrite.es)

**Jai zorientsuak  
opa dizkizuegu  
durangar guztioi!**





**> JAIK** Joseba Derteano  
Eguen arratsaldea da eta Durangoko anbulatorio zaharreko harrera guneak ezohiko itxura dauka. Alde batean, pertsona batek galdetegiak banatzen dizkie noizerik noizera helburu jakin batez sartzen diren herritarrei; beste aldean, mahai bi elkartu eta jan-edanerako gunea atontzen dabilta Jose Martin Santibañez, Gabriel Minguez eta Rafael Canete. Hirurak Durangoko Mugarra odol-emaileen elkarteko kideak dira eta

**Santibañez:  
“Odol-emaileetik  
errekonozimendu  
dena merezi dute”**

egueno errepikatzen duten liturgian murgilduta daude. Herritarren eta Transfusioen Euskal Zentroaren arteko bitartekaritza lanean laguntzea da euren ardura. Elkarrekin 1969az geroztik dabil lan horretan. Horregatik, urte askoan eta etenik barik egindako lanaren errekonozimendu moduan, aurten elkarteko kideek piztuko dute San Fausto jaiei hasiera emango dien txupina.

“Eskertzekoa da gutaz gogoratu izana”, dio Santibañezek, eta benetako protagonistak odol-emaileetik direla adierazi du. “Egiten dutenaren balioa azpimarratu beharra dago. Naturaltasunez etortzen dira eta sarritan ez dira konturatzen egiten dutenaren garrantziaz. Odola ematea bizia ematea da eta errekonozimendu guztia merezi

# “Adineko jendea erretiratzeko ari da eta belaunaldien arteko erreleboa falta da”

Mugarra odol-emaileen elkarteak piztuko du San Fausto jaiei hasiera emango dien txupina



Gabriel Minguez, Rafael Canete eta Jose Martin Santibañez Durangoko anbulatorio zaharraren aurrean.

dute. Gu, azkenean, bitartekari batzuk gara”. Bitartekariak ez ezik odol-emaileetik ere badira, Minguezek besoko zain baten gainean duen esparatapu eta

kotoi zatiak adierazten duenez. Odola eman berri du. Eurez gainera, Durangon 1.129 odol-emaileetik aktibo daude. Aktibo deitzen diete azken hiru urtetan odola

gutxienez behin eman duten herritarrei. Gehienak, erdiak baino gehiago, 46 urtetik gorakoak dira: herritar aktiboek %55, hain zuzen. 26 eta 45 urte

arteak %36 dira, eta 8 eta 25 urte artekoak, %7,7. Beraz, gazteenak gutxiengoa dira. Azken urteetan odol-emaileen kopuruak “beheranzko joera” duela

**90 GRADU**  
LAN BERTIKALAK  
TRABAJOS VERTICALES

**FATXADA ETA PATIOEN  
KONPONKETAK  
ETA MARGO LANAK**

Eskatu aurrekontua konpromisoak gabe

Tel.: 616 413 660  
info@90gradu.com  
Bernagoitia auzoa, 14  
ZORNOTZA

**ALDAMIORIK GABE**

**bed's**

Bed's Koltxoi-denda  
Alluitz 1, Durango  
944 005 980

**ALDEKOA-OTALORA**  
ITURGINTZA - BEROGINTZA - AIREA - GASA  
MANTENIMENDU INDUSTRIALA

info@aldekoootalora.com  
692 859 779

**clínica dental hartzklinika**  
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA  
ETA ESPEZIALITATEAK  
08:00etatik 21:00etara ZABALIK

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }  
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454  
uecdental@gmail.com

**NACEX**

INFORMAZIO OROKORRA  
900 100 000

www.nacex.es

San Roke, 10-12 DURANGO  
Tel.: 946 200 162  
Mob.: 666 444 101  
4810.operativa@nacex.es

**Adinara Urreta Jainaga**

OINETAKO PATOLOGIAK  
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK  
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

**IMQ MAPFRE**

Herriko gudarien kalea, 10 behea - DURANGO  
Tel./Faxa: 946 215 404



azaldu du Santibañezek eta joera hori orokorra dela. “Adineko jendea erretiratzen ari da —65 urtera arte eman daiteke odola— eta belaunaldi berrien erreleboa falta da”, adierazi du. Edozelan ere, Durangon mila lagunetik gorako zerrendari eusten diote eta adinean aurrera egin ahala orain gazteak direnak kontzientzia hartzen joango direla espero dute. “Sarritan, gaztea zarenean ez zara ohartzen gizarteko beharizan askotaz, baina esperientzia pilatu ahala gizarteari zeure aletxo eskaini gura izaten diozu”, adierazi du Santibañezek.

Odola eman ahal izateko baldintzak ere sasoi batean baino zorrotzagoak dira. “Orain pentsaezina da lehen moduan ematea, beste filosofia bat zen”, azaldu du Minguezek. Lehenengo galbahea harrera gunean bertan dago. Hautagaiek hainbat galderei erantzun behar diete, baldintzak betetzen dituztela segurtatzeko. Handik medikuarren kontsultara igaroko dira tentsioa hartu, odoleko burdin kopurua neurtu eta beste galdera batzuei erantzuteko. Galbahe horiek gainditzen dituztenek odola zein plaketak eman ditzaie. Oraingo prebentzio neurriak handiagoak diren arren, odola hobeto aprobetxatzeko

### **Durangon odola ematen dutenen %55ek 46 urtetik gora dute**

### **Minguez: “Orain pentsaezina da odola lehenengo moduan ematea”**

baliabideak ere garatu direla diote. Gaur egun, astero 30 eta 40 donazio artean izaten dira Durangon.

48 urte joan dira elkarte sortu zenetik. Besteak beste, Gabriel Gonzalezen eta Anton Garciaren ekimenari esker eratu zen. Elorrioren urtebete lehenagotik abian zegoen odol-emaielen elkarte eta elorriarrerekin batzartu ziren esperientzia bertatik bertara ezagutzeko. Harrezkero, elkarteak parentesirik bako ibilbidea izan du unean uneko arduradunekin. Santibañezek 42 urte daromatza Mugarran, Minguezek 25 bat eta Canetek 10 inguru.

#### **Txupinazoa**

Jaietako txupina piztu eta pregoia irakurtzeko eskaintzak

“ezustean” hartu zituela onartu dute. Santibañez Zaldibarko mendi martxa bat egiten zebilen deia jaso zuenean. Pentsatzeko denbora eskatu ostean, onartu egin zuten odol-emaille denentzako errekonozimendutzat hartuta.

Pregoiaren zirriborroa oraindino findu barik daukate, baina, besteak beste, elkartearen eta elkarte arduradunen historia gogoratzeko, odol-emallei eskerrak emateko eta herritarrak odola ematera animatzeko baliatuko dutela aurreratu dute.

#### **DATUAK**

- **Odol-emaille aktiboen kopurua Durangon:** 1.129
- **Gizonezkoak:** 705
- **Emakumezkoak:** 424
- **18-25 urte artekoak:** % 7,7
- **26-45 urte artekoak:** %36
- **46tik gorakoak:** %55
- **Odol-emaille kopurua elkarte sortu zenetik:** 3.600
- **Odola emateko:** eguenero, 16:30etik 21:00etara, anbulatorio zaharrean



Eguenero 30 eta 40 artean dago odola ematen duten durangarren kopurua.



Odola ez ezik plaketak emateko aukera ere badago.

# URRIAREN

## 12TIK 22RA

# Ondo pasa jaietan!

**DURANGO**  
Udala · Ayuntamiento



# “Denonak, anitzak, parte-hartzaileak eta herrikoiak” izan gura duten jaiak

Txosnagunea Kurutziaga kalean kokatuko da; kalean luzeran egokituko dituzte karpak eta txosnak



Durango Txosna batzordeko hainbat kide, astelehenean, Kurutzigan egindako aurkezpenean.

**> TXOSNAK** Markel Onaindia Duela bost urte lez, Kurutziaga kalean kokatuko da Txosnagunea. Kalean luzeran egokituko dituzte karpak, txosnak eta eszenatokia, eta urriaren 11tik aurrera, jai-giro itzela sortuko da bertan. Izan ere, eguneko zein gaueko egitaraua landu dute Txosna batzordeko kideek, “herriari jai eredu alternatibo bat eskaintzeko prest”.

**“Herriari jai eredu alternatibo bat eskaintzeko prest” daude**

**Paella lehiaketa izan ohi da ekitaldi jendetsuenetako bat, urriaren 13an**

Astelehenean aurkeztu zuten egitaraua Kurutziazgako iturriaren bueltan. “Egitarau oparoa” osatu dutela diote, paella lehia-

**3D INPRIMATZE INDUSTRIALA ETA PARTIKULARRA**  
Diseinua, digitalizazioa eta piezen inprimatzea. 3D inprimagailuen salmenta eta mantentze-lanak.

**INPRIMAGAILUAK ETA FUNTZIO-ANITZEKO GAILUAK**  
Salmenta eta alokairua kopien kopuru kostuan. Zerbitzu tekniko ofiziala. Kontsumigarrien salmenta.

**BULEGO MATERIALA**  
Paper-gaiak. Idaztekoak. Artxibagailuak.

**DOKUMENTUEN KUDEAKETA**  
Eskaneatzea, digitalizazioa, dokumentuen kudeaketa.

**3D print kolor**

San Ignazio auzunea, 1B DURANGO  
Tel. 948 21 65 40  
durango@3dkolor.com  
www.3dkolor.com

**oiz**

**M.Z.O. ITURGINTZA GASA BEROGAILUAK ERAIKUNTZA S.L.**  
suministrosoiz@suministrosoiz.com  
www.suministrosoiz.com

**BILTEGIA**  
UAI Industriagunea, 2 C  
48215 IURRETA  
Tel.: 946 816 051

**ERAKUSKETA DENDA**  
Plateruen Plaza, z/g.  
48200 DURANGO  
Tel.: 946 810 693

**SANEAMENDUA, LOZA, GASA, BEROGAILUAK, BAINUGELARAKO ALTZARIAK**

LOTERIAK PRENTSA **barik**

**IKERFER**

Ermodo, 25 behea Durango  
Tel.: 946 810 566

**pablo zubizarreta**  
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D · 48200 Durango  
pzubizarreta@gmail.com  
Tel.: 946 550 049 / 695 784 963

RPS.: 57/16

**PINTURAK GOI MAILAKO DEKORAZIOA SISTEMA TINTOMETRIKOA PAPER MARGOTUAK**

**MONTO**

**DURANGO MARGOAK**  
Askatasun Etorbidea, 9 DURANGO  
Tel.: 946 40 88 20  
www.durangomargoak.com

**ALLUITZ MOTOR ZURE KONTZESIONARIOA VOLKSWAGEN, AUDI eta SEAT DURANGON**

**Volkswagen Audi SEAT**

ZERBITZU OFIZIALA SALMENTA ETA SALDU OSTEKO ZERBITZUA MEKANIKA-LANTEGIA ALLUITZ MOTOR ALLUITZ KALEA, DURANGO Tel.: 946 202 004 TEKNOLOGIA GOZAGARRI



ketagaz, erreka jaitsieragaz, umeentzako puzgarriekin eta oilasko dastaketagaz, besteak beste. Dispertsioaren aurkako taldeak jaurtiko du txupinazoa.

Paella lehiaketa izan ohi da ekitaldi jendetsuenetako bat, urriaren 13an, San Fausto egunez, ospatzen dena. Elkarteka zein kuadrillaka ehunka lagunerekin parte hartzen dute. Aurten ere izena eman gura dutenek

### Kantaldia eskainiko dute Nerea Ibarzabalek eta Miren Amurizak

### Eat My Fear Alemaniatik dator, eta Genderlexx Madrildik

urriaren 9a baino lehen egin beharko dute, [pantxiketxosnelkarte@gmail.com](mailto:pantxiketxosnelkarte@gmail.com) helbidera idatzita. Bertan, partaide kopurua eta arduradun baten izena eta telefonoa idaztea eskatu dute.

Paella lehiaketaren egunean, bazkalostean, ikusle ugari batzen dituen erreka jaitsiera egingo dute, Ourdaybiko ki-

deen antolakuntzari esker.

### Bertso feministak

Txosnaguneko nobedadeetako bat bertso feministena izango da. Urriaren 20ko tortilla txapelketa garatzen den bitartean, kantaldia eskainiko dute Miren Amuriza eta Nerea Ibarzabal bertsolariek. Musikaz lagundutako bertso saioa izango da, letra feministak hedatzen lagunduko duena.

Egun horrek ukitu feminista nabaria edukiko du. Bertsoez aparte, emakumez osatutako talde batzuen kontzertua ikusi ahalgo da. Eat My Fear Alemaniatik dator, eta Genderlexx Madrildik. Talde bi horietako ia partaide guztiak neskak dira. Euregaz batera Zoo eta Godoys taldeek ere eskainiko dute zuzeneko.

### Eskualdekoen aukera

Durungaldeko musika eszenaren erakusgarri izaten da baita ere Txosnagunea, eta aurten ere horrela izango da. Bertan, Tres41, Alerta, Stronger Together, Storm, Luhartz eta Txapito Guzman eta Ibarako Langostinuen taldeek eskainiko dituzte abestiak euren jarraitzaile eta lagunentzat.

## Hainbat neurri hartu dituzte txosnek, Kurutziagako auzokideen mesedetan

Kontzertuen ordutegia aurreratu dute, eta komun eta kontainer gehiago ipini

### > JAIK M.O.

Txosnen kokapenaz polemika sortu eta gero, elkarbizitzaren alde hainbat neurri hartu dituztela iragarri dute Txosna batzordeko kideek. Kontzertuen ordutegia aurreratu dute; gunetik gertu uneoro anbulantzia bat egongo da —duela bost urte anbulantzia batek arazoak izan zituen bertan sartzeko—; eta komun eta kontainer gehiago ipiniko dituzte, adibidez.

### Txosnen gunetik gertu anbulantzia bat egongo da uneoro

Aurten berriro ere kritiken erdigunean jarri dira txosnak, eta, horren aurrean, euren izaera eta lanari garrantzia eman gura izan diote. “Herriaren

bizitzan eta herriaren etorkizunean sinesten duten 14 elkartetako ehunka pertsona konprometitutik osatzen dugu Txosna batzordea. Elkartasunez eta borondatez egiten dugu lan, bai jaietan eta baita urte osoan garatzen ditugun proiektuetan ere”. Horrez gainera, txosnak inklusiboak izango direla diote, eta brigada feministak ere egingo dituztela eraso sexistak prebenitzeko helburuz.



14 elkartetatik osatzen dute Durangoko Txosna batzordea.

# SAN FAUSTO JAIK 2017

**DURANGOKO TXOSNAK**  
jaiak herritik eta herriarentzat

**URRIAK 11**

19:30 **KALEJIRA**  
Santa Anatik batukadarekin

20:00 **TXUPINAZOA**  
Dispertsioaren aurka

21:00 **KONTZERTUAK**  
TRES41  
ALERTA  
STRONGER TOGETHER

**URRIAK 12**

13:00 **OILASKO ERREA**  
Andra Marin

**URRIAK 13**

11:00 **PAELLA TXAPELKETAREN HASIERA**

14:30 **PAELLAK AURKEZTU**

17:00 **ERREKA JAITSIERA**

19:30 **AIRE AKROBAZIA IKUSKIZUNA**  
Airean Akrobazia elkartearen eskutik

20:00 **ERREKA JAITSIERAKO LUNTXA**

21:00 **KONTZERTUAK**  
STORM  
ESKEAN KRISTO  
ZEINKE

**URRIAK 14**

12:00 **UMEEN JOLASAK**

14:00 **GAZTE BAZKARIA**  
(13:00ean kamisetak jaso eta mahaia jarri)

17:30 **OLINPIADAK**

19:30 **KARRO POTEOA**  
eta ondoren... gazte gabal

22:00 **KONTZERTUAK**  
POTATO  
PRISCILAS BAND

**URRIAK 20**

18:00 **TORTILLA TXAPELKETA**  
Bitartean, bertso musikatu feministak Miren Amuriza Plaza eta Nerea Ibarzabal Salegi

20:00 **TORTILLAK AURKEZTU**  
Ganean, ginkana feministal

21:00 **KONTZERTUAK**  
EAT MY FEAR  
GENDERLEXX  
GODOYS  
ZOO

**URRIAK 21**

11:30 **PUZGARRIAK**

14:30 **ELKARTASUN BAZKARIA**

18:00 **KONTZERTUA**  
TXAPITO GUZMAN ETA IBARRAKO LANGOSTINUEK

22:00 **KONTZERTUA**  
LUHARTZ

**URRIAK 22**

18:00 **TXOKOLATADA ETA PANTXIKERI AGURRA**

**DURANGOKO TXOSNA BATZORDEA**





Toni Sanchezek (Panxo), Arnau Gimenezek, Marcos Ubedak, Hector Galanek eta Natxo Ciscarrek osatzen dute Zoo talde valentziarra. Revel

## “Euskal Herrian egon izan garenean oso sentsazio onak izan ditugu”

Zoo talde valentziarrak ‘Raval’ azken diskoa aurkeztuko du, urriaren 20an, Durangoko Txosnagunean

**> MUSIKA** Aitziber Basauri  
Datozen sanfaustoetan Txosnaguneko kartelburu izango zarete urriaren 20an. Zer eskainiko diezue ikus-entzuleei?

*Raval* gure bigarren diskoa aurkeztuko dugu Durangon, *Tempestes vénen del sud* diskoko abestiak ere joko ditugun arren. Hala ere, gure proiektua aurkezteko era ere bada kontzertua,

Euskal Herrian ere ezagutu gaitzaten, gure lana ezagutarazteko. Ez ditugu kontzertu asko eskaini Euskal Herrian, baina, egon garenetan, gero eta jende gehiago etorri dela ikusi dugu.

**Bazterkeriari eta periferiari eskainitako diskoa da ‘Raval’?**

Bai. ‘Raval’ kontzeptu hori, periferiako auzoa, marjinatuen eta

babesgabekoen tokia, eraman gura dugu gure musika eta letretara. Mundu horren, ‘raval’ horien ahotsa izaten saiatu gara. Horrelaxe ere ulertzen dugu gure musika.

**Zelako harrera izan du diskoak?**

Oso ona. Diskoa aurkezteko bira egin dugu Espainiako estatuan, eta Bilboko Antzokian egon gi-

nenean bete egin zen. Salamanca, Granada, Galizia, Kantabria, Madril, Murtzia eta Balearetan egon gara. Katalanez eta valentzieraz abesten duen gurea lako talde batentzat beti da zaila goa traba geografikoa gailentzea hizkuntza ez jakiteagatik, eta oso pozik gaude: ondo doakigulako eta ikusten dugulako beste toki batzuetan interesa dute-

la gure hizkuntzarekiko eta gure munduaren ikuskerarekiko.

**Euskal Herrian egon zaretenean, nolako izan da harrera?**

Azken urte honetan egon garenean oso sentsazio onak izan ditugu. Irailean Donostian egon ginene eta harrিতuta geratu ginene etorri zen jende guztiagaz; espe-

**“Instrumentuekin egindako rap elektronikoa da guk egindakoa”**

ro baino gehiagok ezagutzen zituen eta dantzatzen zituen gure abestiak. Gogo handiagaz goaz Durangora. Euskal Herrian ere taldea finkatzeko gogoagaz.

**Nola deskribatuko zenukete zuek egindako musika?**

Rapean du oinarria, baina musikaldi azkarragoa, dinamikagoa da. Rap klasikoa baino dantzagarriagoa, dibertigarriagoa. Zuzenekoetan musika-tresnak ere sartzen ditugu. Rap elektro-organikoa edo instrumentuekin egindako rap elektronikoa da guk egindakoa.

**2014an sortu zen Zoo. Musika talde gaztea zarete.**

Bai, baina hiru urte oso biziak izan dira. Pozik gaude, baina gauden mailan egoteko, esfortzu handia eta gauza asko oso azkar ikasi behar izan ditugu. Bidegabekeriak salatze eta aldaketarako tresna baliogarria izan gura duen musikaren eta kulturaren zati horren parte gara.

**arkupe**  
FUTBOL PARTIDUAK,  
HAPPY HOUR,  
DOAKO TAPAK,  
PATATA TORTILLAK  
ERAMATEKO,  
....  
GOIENKALE, 13  
DURANGO

**KALE KANTOI**  
Goienkale, 17  
DURANGO  
Tel.: 946 030 763

enpresa-bilera  
ospakizunak  
urtebetetze  
jaunartze  
bataio  
**DURANGON  
ORDUKAKO  
TXOKO ALOKAIURUA**  
688 861 975  
info@zuretxokoa.com  
**ZURE  
txokoa**  
www.zuretxokoa.com

**MESOI  
BARRIA**  
Tel.: 946 030 341

**momtxo**  
taberna  
Trenbide kalea, 12  
DURANGO  
Tel.: 946 030 791

**IBAIZABAL**  
IBAIZABAL AUZUNEA, 2 DURANGO · TEL.: 946 550 185

**Gure  
KABIYA  
TABERNA**  
goienkalea, 11 durango

**TABIRA  
ETXEA**  
Pintxoak • Bazkariak • Afariak  
Tel.: 946 810 241  
Tabira kalea, 33  
DURANGO



# GUKAko euskaltzaleek urte osoko jarrera baikorra eramango dute txosnagunera

Aurten ere jan-edana, giro euskalduna eta konpainia ona eskainiko ditu, besteak beste, GUKAk jaietan



'Etorbizuna euskaraz dator' lemadun zapiak atera ditu GUKAk, aurten. Euro batean egongo dira eskuragai Kurutziaga kaleko GUKAren karpan.

## > EUSKALGINTZA I. E.

Azken sei urteetan bezala, aurtengo sanfausto jaietan ere Durangoko euskaltzaleen karpa atonduko dute Durangoko txosnagunean. Kurutziaga kaleko iturri ondoan egongo da, aurten, AEK, Euskal Herrian Euskaraz, Ibaizabal ikastola eta Berbaro Taldea biltzen dituen GUKA taldearen txosna.

Jan-edanerako aukera ezezik, musika eskaintza berezia ere egongo da jaietan GUKAko txosnan: DJ Kool-ek (urriaren 11n), eta DJ Elepunto (urriaren 21ean) euskal musika ipiniko dute euskaltzaleen gunean.

Txosnagunean euskal musikaren protagonismoa bermatzeko helburuz gonbidatu dituzte bi DJ horiek GUKAra.

Azken urteetan arrakasta handia izan duten mezu ironiko eta umoretsudun txapen labekada berria izango da eskuragai euskaltzaleen Durangoko jaietako gunean, doan.

Txapez gain, zapiak ere izango dira, gainera, aurten. Jaiei giro euskaltzalea eta kolore bizia emateko asmoz, *Etorbizuna euskaraz dator* lemadun zapiak atera dituzte, eta euro batean salduko dituzte. GUKAren aldarriaz bat egiten duten herri-

**Kool eta Elepunto  
Djen saioak  
izango dira  
GUKAko karpan**

**Sanfaustoak  
euskaraz  
gozatzeko deia  
egin dute**

tar guztiak animatu dituzte jaietan zapi hori soinean eramatera.

Urte osoan bezala, jaietan ere Durangon euskaraz bizitzeko aukerak sortzen dabilzan herritarrek osatzen dute GUKA kolektiboa. Sanfaustoetan durangarren arteko komunikazioa euskaraz izatea bultzatu gura dute, eta harreman horiek garatzeko gune zabala eskainiko dute Kurutziaga kaleko txosnan: giro euskalduna, konpainia ona, eta jan-edana izango dira aukeran gune horretan.

Sanfaustoak euskaraz gozatzeko deia egin dute. "Euskaraz bizitzeko aukerak behar ditugu, eta aukera horiek aprobetxatzeko gogoz gara" esan dute.

## Sanfaustoetan lau DJk dantzan jarriko dute Plateruena

### > MUSIKA I. E.

Aitzol, Ainhoa, Ruben eta Karlos DJek osatutako kanta zerrendek girotuko dituzte Platerueneko gauak aurtengo San Faustoetan. Barikuetako saioetan eszenatokitik arituko dira DJak, eta kabinatik, zapa-tuetan. Helburu beragaz arituko dira laurak: beraien kanta zerrendagaz Plateruenean biltzen den jendea dantzaraztea.

Aitzol abadiñarrak "musika berria eta klasikoagoa" uztartuko ditu urriaren 12 eta 20ko saioetan. Ruben Costas iurretarrak, bestalde, urriaren 14an eskainiko du pop, rock, ska, eta hip-hop doinuek osaturiko bere kanta zerrenda. Duela zortzi urtetik dihardu Costasek Durangoko Kafe Antzokian musika jartzen eta Gau Elektronikoen antolatzaileetako bat izan zen.

Urriaren 21ean Ainhoaren eskutik joango da Platerueneko goizaldera arteko soinu banda. Ohi duen bezala, "denetik" ipiniko duela dio. Oso estilo desberdinetako kantak bata bestearen ostean, "transiziorik barik" ipintzeko erreparrorik ez duela aurreratu du.

Urriaren 11n eta 13an, San Faustoetan musika jartzen lehenengoa Karlos iurretarra izango da. Rocka, popa zein elektronika ipiniko du jendea dantzara animatzeko.

**Magdalena Gozotegia**  
ARTISAU-GOZOGINTZAKO LANTEGIA

*Artopilen aitzindariak  
jai zoriontsuak  
opa dizkizute!*

Fray Juan Zumarraga, 3 · DURANGO · Tel.: 946 810 929

**goragora  
kafetegia**

Arriluzea, 2 behea  
Tabirako auzoa - DURANGO  
Tel.: 946 811 384

astebitartean, 8:00-22:30  
asteburuetan, 9:00etatik aurrera

**ZERO**

Ostegun, ostiral eta  
larunbatetan afariak  
Andra Maria plaza, 10  
DURANGO

**NAPOZY**

Josemi Barandiaran, 8  
DURANGO  
Tel.: 946 00 40 86

**PLATERUENA**

www.plateruena.eus

**LANDAKO TABERNA**

RAZIOAK  
eta BOKATAK

**ONDO PASA  
JAIETAN!**

Txibitena, 9  
DURANGO

Entsaladak · Sandwitxak · Ogitartekoak  
· Kafea eta Edariak ·  
· Begano eta bejetarianoentzat eskaintza ·

F.J Zumarraga, 4. Durango | Tel.: 650 246 943

**RUGBY  
TABERNA**

Goienkalea, 18 DURANGO  
Tel.: 946 200 007  
www.durangorugby.eus



# “Ilusioagaz hartzen ditut sanfausto jaiak; oso giro ona sortzen da”

Bingen Elgetaren ‘Durangar nortasuna’ kartelak iragarriko ditu sanfaustoak; 1.000 euroko saria irabazi du diseinu industrialak ikasten ari den durangarrak

**> MUSIKA** Aitziber Basauri  
**Lehenengo aldia da kartel lehiaketa batera aurkeztu zara? Zerk animatu zaitu?**  
 Bai. Bilboko Aste Nagusirako kartel lehiaketara ere aurkezteko nintzen, baina berandu ibili nintzen. Gero sanfaustotarako lehiaketara aurkezteko aukera izan nuen eta aurrera egin nuen. Bi lan aurkeztu nituen.

**Eta zure lanetako bat izan da aukeratua. Nola hartu duzu berria?**  
 Ezin sinetsita! Baina oso pozik.

**Diseinu industrialak ikasten ari zara. Horrek sorkuntza prozesuan lagundu izan ditu? Nola sortu zitzaizun ideia?**

Neurri batean lagundu izan dit, bai. Beste ideia batez gain, beste ideia bat ere sortu nuen. Esne tetrabrik batean ikusitako irudi batetik ateratu nuen ideia: behi baten buruaren forma ikusi nuen, hainbat berbagaz beteta. Hartara, Santa Anako arkuaren irudia hartu nuen, eta horren barruan sartzeko berba zerrenda bat osatu nuen lagun batez.

**“Esne tetrabrik batean ikusitako irudi batetik ateratu nuen ideia”**

**“Durangoko jaietan ere gastatuko dut sariaren zati bat”**

**Santa Anako arkuak da kartelaren oinarria. Zergatik?**

Santa Anako arkuak oso adierazgarria dela uste dut, eta aukera ematen zidan hainbat berba barruan sartzeko. Kurutzia-ga gurutzia, adibidez, estuagoa da eta ez ditu aukera berdinak ematen.

**Hainbat hitz batzen ditu Santa Anako arkuak. ‘Durangar nortasuna’ erakutsi gura izan duzu modu horretan?**

Hainbat berba daude, bai. Batzuk jaiagaz lotutakoak eta beste batzuk, Durangogaz. Durangarrekin eta jaiekin lotutako berbak dira denak. Urdin ko-

lorea aukeratu dut, horixe delako Durangoko kolorea. Zuriz idatzi ditut berbarik gehienak, eta nabarmentzeko direnak, gorritz.

**Ingurukoek zer esan dizute? Lehiaketara aurkeztu aurretik erakutsi nien ingurukoek, eta asko gustatu zitzaizun. Pozik nago emaitzagaz.**

**Berezia da zuretzat herriko jaiak zure kartelak iragartzea? Bai. Ilusioa egiten dit. Poztekoa da.**

**Nola bizi dituzu zuk jaiak? Ilusioagaz hartzen ditut sanfausto jaiak. Oso giro ona sortzen da eta egun osoan daude ekitaldiak.**

**Pentsatu duzu zer egin irabazitako sariagaz?**

Mugikorra aldatuko dut, zaharkituta geratu zait eta. Behar ditudan beste zenbait gauza erosteko ere erabiliko dut zati bat, eta gainontzekoa aurreztu egingo dut. Durangoko jaietan ere gastatuko dut sariaren zati bat. Lagunei ere pote bat ordainduko diet sanfaustoetan.



Bingen Elgeta ‘Durangar Nortasuna’ izeneko kartelagaz.

**CENTRO DE SEXOLOGIA ZENTROA**  
**ARANTZA ÁLVAREZ**  
 PSIKOLOGOA - SEXOLOGOA  
 Nº Col. GZ-1517

- Orientazioa Sexu informazioa
- Sexu terapia
- Bikotekide aholkularitza
- Bikotekide arteko haustura gairatzeko laguntza

Kontsulta Durangon eta Eibarren  
 Tel.: 645 732 388  
 sexologiaypareja@hotmail.com  
 www.centrodesexologia.com

Mikeldi, 6 · DURANGO · Tel.: 946 813 895 · alkiinteriores@hotmail.com

**Alki Decoración-en ehunen bilduma berria aurkezten dugun.**  
 Kolore eta ehundura askotako bilduma da, giro paregabea sortzeko.  
 Kolore leunak, neutralak eta tonu koloreak, ukitu minimalista gehituz.

**barne dekorazioa**

**Folder-ek jai zoriontsuak opa dizkizu!**

**Folder**  
 Tel.: 946 21 73 42  
 www.folderdurango.es

**B FUNERARIA BASAGUREN**  
**DURANGALDEKO ERRAUSKETA-LABE BAKARRA**  
 ARRETA ASEGURU-ETXE GUZTIEI

BEILATOKIA - ERRAUSKETA LABEA **DURANGO** Aliendalde Ind. 8H eta 8J  
 BULEGOA **ELORRIO** Ibaikua kalea, 6  
**www.funerariabasaguren.com**  
 24 orduko zerbitzua: 94 681 09 95 - 94 681 13 47

TANATORIOA





Ane Izagirre eta Aingeru Salas.



Wado-Kan Karate-Ninjutsu Klubeko kideak.

## Durangoko karatekak izango dira protagonista txupinazo txikian

Ane Izagirre eta Aingeru Salas izango dira pregoilariak hilaren 15ean

**> TXUPINAZOA** M. Zuazubiskar Familia handia da Wado-Kan Karate-Ninjutsu Kluba. 120 karateka, ume zein heldu, dituen taldea urte luzez ari da arte martzialen praktika durangarren artean bultzatzen.

Aurtengo San Fausto jailetan, urte hauetan guztietan egindako lanagatik txupinazo txikia botatzeko aukera izango dute Wado-Kan Karate-Ninjutsu klubeko kideek. "Itzela da guretzat txupinazo txikia bota

ahal izatea" aitortu du Saul Peña klubeko kideak. Pregoia jaurtiko dutenak Ane Izagirre eta Aingeru Salas gaztetxo durangarrak izango diren arren, taldekide guztiak "pozez zorazten" daudela aitortu du Peña.

1986 sortuta dagoen taldeko kideek aitortu dutenez, Durangoko herriak hogeita hamaika urte hauetan egindako lana eskertu die, eta horregatik oso pozik daude. "Guretzat Durangoko herriak egiten digun eskertza bat da hau, eta beraz, gu ere oso eskertutata gaude", esan du Peña. Horrez gain, irailaren 15ean 12:00etan jaurtiko duten txupinazoko ueña "ahaztezina" izango dela gaineratu dute taldeko kideek.

### Karatea bultzatzen

31 urtez Durangon arte martzialen praktika bultzatzen dabilzan kideen esanetan, eurek eskaintzen duten kirol honek "indar nahikotxo" du herrian. "Badakigu futbolak, saskibaloiak eta errugbiak jende asko mugitzen dutela, baina, guk ere jende dezente mugitzen dugu Durangon. Eta, hemendik aurrera, jende gehiago ezagutzea espero dugu", bukatu du Saul Peña Wado-Kaneko kideak.

**IURRETA**

**Tellitu-n hurrengo eraikuntza**

3 logelatako  
6 etxebizitza

2 logelatako  
11 etxebizitza

Garajea eta trastelekua barne

eraikuntza berria!

**DURANGO**  
KAFE ANTZOKIA - MONTEVIDEO

**Etorri ikustera geratzen diren 2 etxebizitzak!**

Durangoko herrigunean  
Energia eraginkortasun handiko etxebizitzak  
Hiriko txaletak  
Oiz mendira begiratokiak  
Leku zabalak

**Etorri ikustera!**

**ZARATE ELEXPE**  
ERAGILEAK

Kontsultatu beste aukerak  
Tel.: 946 816 673  
www.zarateyelexpe.com

**ROTU-NET**  
LATEX ERROTULUAK

[www.rotunet.net](http://www.rotunet.net)

**DESGUACES PILASTRA**

**AUTOAK DESEGITEKO LANTOKI BAIMENDUA**

- Erabiltzen ez diren ibilgailuak deskontaminatzeko zentro baimendua EU2 / 097 / 04 gestorea.
- Ordezko pieza erabilien salmenta.

**GRUA ZERBITZUA**

IBILGAILUEN BEHIN BETIKO BAJA EMATEA  
eta Faxe: 946 218 079  
OSAGARRIEN SALMENTA  
☎ : 946 201 787

Fauste Auzoa, 18  
Zugastietara bidean  
48215 IURRETA  
gestion@desguacespilastra.com

**ZAGAR SISTEMAS, S.L.**

**ZAGAR**  
SISTEMA TERMIKOAK ETA SUTEEN AURKAKOAK

**SISTEMA TERMIKOAK**  
Klimatizazioa  
Aireberritzeko instalazioak  
Energia berriztagarriak

**SUTEEN AURKAKO INSTALAZIOAK**  
Su-itxalgailuak  
Suteetako ur-harguneak  
Suteak antzemateko instalazioak

Solozabal Pol. - Pab. 7 ZALDIBAR  
Tel.: 946 826 673  
[www.zagarsistemas.com](http://www.zagarsistemas.com)

**ekin**

ekin S. Coop.  
Arriagane Industrialdea (Boroa auzoa)  
48340 AMOREBIETA  
[www.ekin.es](http://www.ekin.es)



**LASTER, KALITATEZKO  
27 ETXEBIZITZA,  
GARAJEAK ETA  
LOKAL KOMERTZIALAK**



- TERRAZA HANDIAK
- ESPAZIO ZABALAK
- INTERNETERAKO DOAKO KONEXIOA
- HORMA ARMAIRUAK
- ENERGIA ERAGINKORTASUN HANDIKO ETXEBIZITZAK

**94 681 44 95 / 650 397 007**

**ERTZAINZAREN BIRIBILGUNEAN,  
KURUTZIAGA ONDOAN**

**[www.promotoraargolabe.com](http://www.promotoraargolabe.com)**





## Muguruza eta Atxagaren 'Harriaren hiztegia', Zornotza Aretoko ikasturte berria abiatzeko

Jabier Muguruzaren musika eta Bernardo Atxagaren testuak biltzen dituen emanaldia izango da, gaur



Muguruza gonbidatu dute, asteon, Zornotza Aretoko udazkeneko programazioaren aurkezpena.

**> EGITARAUA** Itsaso Esteban Jabier Muguruzaren musikagaz eta Bernardo Atxagak idatzirik testuekin sorturiko

*Harriaren hiztegia* diskoaren aurkezpena izango da Zornotza Aretoko kurso berriko lehenengo. Gaur, 20:00etan, eskai-

niko dute sei urtetik gorako ikusleria familiarrari zuzenduriko emanaldi hori. Kontzertu horren inguruan jarduteko,

Muguruza gonbidatu dute asteon, Zornotza Aretoren udazkeneko programazioa aurkezteko egin duten agerraldira.

1992ko Nafarroa Oinezarako *Arraroa noski* kanta ezaguna sortu zutenetik elkarlanean jardun bakoak ziren Atxaga eta Muguruza, eta azaroan kaleratu zuten *Harriaren hiztegia* diskoa. Atxagak grabazio horretarako propio idatzi eta Muguruzak disko horretarako konposaturiko musikak biltzen ditu lan horrek. Diskoko kantak zuzenean eskainiko dituzte Zornotza Aretoran.

Diskoaren grabaziorako hautatu zituzten Naroa Zamora eta Daniela Etxebarria neska-toek kantatuko dute Zornotza Aretoko emanaldian, eta musika-hirukote batek lagunduta jardungo dira. Soinua joko du Muguruzak, eta hainbat testu errezitatzen ere jardungo da Zornotzako emanaldian. Irungo musikariak azaldu duenez,

haurren mundu ikuskerara gerturatzeko asmoagaz landutakoak dira ikuskizun horretako musikak eta berbak, eta "jolasa eta umorea" dituzte ezaugarri.

### Estreinaldi bat

Andoni Agirrebeitia Zornotzako alkateak nabarmendu duenez, "adin guztiei zuzendurikoa, kalitatezkoa eta bariatua" da Zornotza Aretoran datozen hiletarako osatu duten programazioa. Besteak beste, Anita Maravillas konpainia zornotzarrak hiru urtetik gorakoentzat sorturiko *Jon Braun* ikuskizunaren estreinaldia hartuko du aretoak, azaroaren 10ean eta 11n.

Anita Maravillas taldeko Miren Larrearena ez da izango Zornotza Aretoko ikasturte hasierako zornotzar baten lanaren emanaldi bakarra. Izan ere, urriaren 20an, *Margolari* diskoak bere herrikideei eskainiko dizkie Mikel Urdangarin Zornotzako musikariak, bere taldekideek lagunduta.

Zornotza Aretoren webgunean ([www.zornotzaaretoa.net](http://www.zornotzaaretoa.net)) dago, abenduaren 28ra arte, kulturagune horretako emanaldien egitaraua ikusgai.

### > DANTZA I. E.

Sabel-dantza eta dantza tribalak uztartzen dituen ikuskizuna eskainiko du Durangoko Khuzayma taldeak, San Agustín kulturgunean, gaur. *Raíces* izenburua du Durangon eskainiko duten obra horrek, eta 20:30ean hasiko da emanaldia.

Iaz ez zuten emanaldirik eskaini, baina 2012tik lau urtez jarraian igo dira Khuzayma taldekoak San Agustingo ohol-tzan euren lana erakustera. Urtebeteko deskantsuaren ostean, berriro arituko dira gaur Durangoko ikusleen aurrean. Aurreratu dutenez, aurrean hainbat nobedade eskainiko dizkiote bertaratzen den publikoari: *popping* kale dantza, eta txalaparta eta zeharkako txirularen zuzeneko musika ere izango dira emanaldiaren osagaiak.

Durangoko dantza taldeko kideek aurreratu dutenez, gizakiaren naturarekiko lotura aldarrikatzen duen lana da *Raíces*. Ikusleei "esentziara jo eta bizitzaren soiltasunera bueltatzeko" proposamena egiten die dantzaren bitartez.

Aurreko urteetan bezala, Durangotik kanpoko hainbat lagun dantzari gonbidatu dituzte Khuzayma elkarteak gaurko ema-

## 'Raíces' dantza ikuskizuna eskainiko du Khuzayma taldeak San Agustinen

Sabel-dantza da ikuskizunaren ardatza. Gaur, 20:30ean, hasiko da emanaldia

naldira. Bilbotik hiru dantzari etorriko dira, lau Gasteiztik eta beste bat Kantabrietatik.

Durangoko Ibaizabal ikastolako Errota gimnasioko ikastaro batean hasi ziren elkarteko kideak sabel-dantza egiten, eta han piztutako zaletasunak bultzatuta sortu zuten Khuzayma.

Sabel-dantza, dantza tribalak eta zuzeneko musikak uztartzen dituzte 'Raíces' ikuskizunean

Duela bost urte eskaini zuten sabel-dantza eta dantza tribalen lehenengo ikuskizuna Durangoko San Agustín kulturgunean. *Orient Express* izenburua zuen Khuzaymaren lehenengo ikuskizun hark. Orduetik, ia urtero eskaini dute emanaldiren bat Durangoko antzokian.



Iaz ez zuten emanaldirik eskaini, baina 2012tik urtero igo dira Khuzaymakoak San Agustingo oholtzara.

## Amurizak eta 'Abarkas'-ek Zallan hasiko dute txapelketa

### > BERTSOLARITZA I. E.

Lehenengo hiru final-laurdenak Nafarroa Beherean, Gipuzkoan eta Nafarroan jokatu eta gero, Bizkaira ailegatuko da Bertsolari Txapelketa, bihar. Zallako Mimetiz pilotalekuan jokatu dute txapelketako laugarren final-laurdena, bihar, 17:00etan. Onintza Enbeita, Oihane Perea, Odei Barroso eta Jone Uria bertsolariekin batera, saio horretan parte hartuko dute Eneko Abasolo *Abarkas* iurretarrak eta Miren Amuriza berriztarrak.

Orain arteko final-laurdenetan Alaia Martín, Jon Martín eta Oihana Iguaran gailendu dira, eta Ugartetxea da kantatu duen Durangaldeko bertsolari bakarra. Hirugarren sailkatu zen Baigorri.

Bertsozale elkarteak asteon jakinarazi du elkarteko kide ez direnentzat ere eskuragai daudela jada finalaurreko eta finaleko sarrerak.



**> ZINEMA** J. D. / I. E.

Donostiako 65. Zinemaldian Euskal Zinemaren Irizar Saria eta epaimahaiaren sari berezia irabazi ditu protagonistetako bat Eneko Sagardoy durangarra duen *Handia* filmak. Aitor Arregi eta Jon Garaño filmeko zuzendariak jaso zituzten sariak, zinema jaialdiaren zapatuko ekitaldian. Epaimahaiaren arabera, "herri baten esentzia" eta "ezberdintasunaren balioa" islatzen jakin dute filmaren egileek.

Jaialdiaren sari banaketa ekitaldian zuzendariak adierazi zuten "ilusio handia" egin diela sari horiek jasotzeak. Nabarmendu zuten "pelikula egiten hustu" egin direla, "den-dena eman" dutela. *Handia* filma gauzatzea ahalbidetu duten lantaldeko aktore eta teknikari guztien lana eta "euskal zinemagintza indartzeko" Zinemaldiak egindako lana goraiatu zituzten zuzendariak.

XIX. mendean kokaturiko istorioa da Eneko Sagardoy durangarra eta Joseba Usabiaga tolosarra protagonista dituen *Handia* filma. Sagardoyk eta Usabiagak antzezten dituzten

## Donostiako 65. Zinemaldian sari bi eman dizkiote 'Handia' filmari

Euskal zinemaren Irizar Saria eta epaimahaiaren sari berezia jaso dituzte



'Handia' filma egiten "hustu" egin direla, "den-dena eman" dutela esan zuten zuzendariak saria jasotzerakoan.

Epaimahaiaren arabera "herri baten esentzia eta ezberdintasunaren balioa" islatzen asmatu dute

anaia bien arteko harremana da pelikularen ardatza.

Zinemaldiko estreinaldiaren ostean, beste zinema-areto batzuetako bidea abiatu du, asteen, *Handia* filmak. Donostiako zinema jaialdiaren eta

Bilboko Azkuna Zentroaren arteko elkarlanari esker, Zinemaldian estreinatutako hainbat film eman dituzte aste honetan Bilbon, tartean *Handia* ere bai. Emanaldi horretarako sarrera guztiak agortu ziren aurrez.

**GEURE DURANGALDEA**

**GARAZI ARRIZABALAGA CABRERIZO**

Durangoko Museoa

**Harresirik barik**

Parke berri bat dauka gaurtik aurrera Durangok. Emakume izena daramana. Benita Uribarrena izena eman diote Arte eta Historia Museoren atzekaldeko parkeari.

Aspaldian itxita egon den eta hainbat gora-behera izan dituen parke honek gaurtik aurrera atek zabalik izango ditu bertaratu nahi duen edozein durangarrentzat edo kanpotarrentzat.

Simplea badirudi ere, parkea eta Museoa bera inguratzeko duen harresia kentzea ez da hain gauza erraza izan. Iritzi desberdinak egon dira, eta hori horrela izan behar da.

Salaketa bat ere izan dugu, Bilboko arkitekto baten ustez eraikuntzaren "prefatxada" barrokoa kentzea astakeria baita. Nire ustez, hori esateak historiari buruz gehiegi ez jakitea adierazten du, izan ere, jauregi barrokoak ez zuten inoiz harresirik izan. Gaur egungoa XX. mendeko harresi moderno bat da. Aldundiak ere onartu egin du harresia kentzea, historikoki balio garrantzitsurik ez duelako.

Beste batzuen ustez parkea zabalik egotea arriskutsua izan daiteke. Arriskutsua? Noren arabera da hori horrela? Arriskutsuak pertsonak gara, ez atek zabalik dituen parke bat. Parkeak bizia emango digu, eta hainbat gauza egin ahal ditugu bertan: paseatu, irakurri, jolastu, norbaitekin geratu, deskantsatu, naturaz gozatu... Gure esku dago dena, arriskutsua izatea ere bai. Zaintzen baldin badugu ez da arriskurik egongo. Alderantziz, parke hau durangarrentzat opari bat da, disfrutatzeko leku bat. Harro egon beharko genuke, izan ere Durangoko erdialdean txoko berde bat irabazi dugu denok.

## 'Toxina' filmak irabazi du Kinerally maratonia

Lehiaketaren III. edizioa egin zuten Zornotzan

**> ZINEMA** I. E.

Zortzi taldek hartu zuten parte joan zen asteburuan Zornotzan egin zuten III. Kinerally ikus-entzunezko maratonia. *Toxina* lanagaz, Topazio taldeak eskuratu zuen 350 euroko lehenengo saria. Bigarrena, 150 eurokoa, Betigol taldearen *Duende del Zur* lanari eman zion Marijo de la Hoz sortzaileak, Arkaitz Basterra zine zuzendariak eta Oihane Amanategi Kine zineklubeko kideak osaturiko epaimahaiak.

Lehiaketako bi sari nagusi horiez gainera, aipamen berezi

bat ere egin zuen epaimahaiak: Jambo Mogambo taldearen filmeko aktoreek egindako lana nabarmendu zuten epaileek sari berezi horregaz. Bestalde, film lehiaketan parte hartu zuten zortzi taldeei diploma bana eman zieten, 24 orduan pentsatu, Zornotzan grabatu eta editatutako lan bakoitzaren ezaugarri bereziak nabarmenduz.

Kine zineklubeko antolatzaileek azaldu dutenez, parte-hartzaile gehienak zornotzarrak izan dira, baina Bizkaiko beste herri batzuetako eta Gipuzkoako partaideak ere izan dira.

## Gorka Urbizu eta Izaro Andres, musikari lanaz

Jendaurreko solasaldiak eskainiko dituzte

**> MUSIKA** I. E.

MondragonLingua enpresak antolatzen duen Topaketalk ekimenean parte hartuko du Izaro Mallabiko musikariak. Gorka Urbizu Berri Txarrak taldeko abeslari eta gitarristagaz jendaurreko hiru solasaldi izango ditu, Euskal Herriko hiru lekutan. Lehenengo saioa atzo izan zen, Oñatiko kultur etxean; bigarrena Donostiako Koldo Mitxelena aretoan da, gaur; eta urriaren 10ean, Gasteizko Artium Museoaan egingo dute azken saioa. 19:00etan hasiko dira saio guztiak.

Musikaren industriaren egoeraz, sexismoaz, lan-prekarietateaz, birez eta bidaiez, sorkuntza prozesuez eta letren idazkuntzaz jardungo dira, besteak beste, Izaro eta Urbizu. Solasaldiari amaiera emateko, musikari bakoitzak bestearen kanta bat interpretatuko du.

Donostian eskainiko dute jendaurreko solasaldia, gaur; eta Gasteizen arituko dira, bihar

**Hambre**  
La Líquida Teatro

Urriaren 7an  
20:00etan

Sanagustinalde, 12 - Tel.: 946 030 021  
sanagustin@durango.eus

San Agustín KULTUR GUINEA

**PLATERUENA** Durangoko Kafe Antzokia [www.plateruena.eus](http://www.plateruena.eus)  
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

**JAT ETX EA**

EGUNEKO MENUA  
OSPAKIZUN BEREZIAK

URRIAK 27  
20:00etan  
**URTEURREN JAIA LUHARTZ**  
JAIALDIA

URRIAK 29  
19:00etan  
**DURANGO 1936**  
OMENALDIA

URRIAK 31  
21:30ean  
**RUPER ORDORIKA**  
KONTZERTUA



## “Lehiarako prestatuta eta gogotsu gaude; igotzeko borrokan aritzeko taldea dugu”

Tabirakon hezitako Orue-Mazagak eta Mendibek lehenengo denboraldia izango dute Zornotza STn

**> SASKIBALOIA** Joseba Derteano Zornotza Saskibaloi Taldeak asteburu honetan ekingo dio EBA mailako ligari. Udako buruhauste guztiak alboratu eta astean asteko partiduetan zentratzeko ordua heldu da. Hutsetik abiatuz, Zilarrezko Ligara itzultzen saiatzea da helburua, eta erronka handi horren parte dira Imanol Orue-Mazaga (Berriz, 1996) eta Markel Mendibe (Durango, 1999). Tabirakoren harrobian hezitako jokalariek biek lehen urtea dute Zornotzan.

Joseba Estalayo leioarra da iazko taldeetik jarraitzen duen jokalaririk bakarra. Gainerako guztiak berriak dira, hiru estatubatuar eta bosniar bat tartean. Hori gutxi balitz aste bi eskas bakarrik izan dituzte denboraldia prestatzeko. Hala ere, igotzeko borrokan ibiltzeko taldea dutela uste dute eskualdeko jokalariek.

biek. “Taldea ondo ikusten dut, gogotsu eta lehiarako prestatuta gaude. Gauza batzuk fintzea falta da, baina hori talde denei gertatuko zaie. Goian ibiliko garela uste dut”, dio Orue-Mazagak. Iritzi berekoa da Mendibe ere.

Asteon jokatutako lagunarteko partidu bien artean garapen bat ikusi da. Tabirakoren, euren talde ohiaren kontra, garaipen sufritua lortu zuten lehenengo. Ondoren, Kantabrian 10 puntu-gatik irabazi zioten euren maila bereko Gallofa taldeari. Torrelavegaren, Kantabriako beste talde baten kontra hasiko dute denboraldia zapatuan, 18:30ean, Larrea kiroldegian.

**Erakutsi edo ikasteko gogoz** Orue-Mazagak badaki EBAn jokatzea zer den. Santurtzin ibili zen iaz eta gustura dago erakutsitako errendimendua-



Markel Mendibek 18 urte ditu eta joko antolatzailea da; Imanol Orue-Mazagak 21 urte ditu eta pibot postuan jokatzen du.

gaz. “Hasieran erritmoa hartzea kostatu zitzaidan, baina nahiko arin hartu nuen. Egia esanda, ez nuen uste hain denboraldi ona irtengo zitzaidanik eta taldean horrelako pisua hartuko nuenik, EBAn lehenengo urtea nuelako. Baina entrenatzaileak nigan konfiantza jarri zuen eta pozik nago”, adierazi du pibot berriztarrak. Aurten “iazko maila hobetzen” saiatuko da.

Markel Mendiberentzat berrria da dena. Hasiberria izango

da alderdi askotan. Lehenengo urtea du Tabirakotik kanpora, lehenengoz jokatuko du EBA mailan eta, hori gutxi balitz, aurtengoa du seniorretako au-

**Markel Mendiberentzat** berrria da dena; lehen urtea du seniorretan eta lehen urtea EBA mailan

rreneko urtea. 18 urte gaz “ikus-teko eta ikasteko gogotsu” dagoela dio. “Jauzi handia da, hori badakit. Beste erritmo bat, kalitate gehiago... eta defendatzen ditudan jokalariek ni baino 20 bat kilo gehiago dituzte. Baina ilusioz nago. Taldean jokalaririk oso onak daude eta haiengandik ikastea dut helburu. Jokatzen ditudan minutuak saria izango dira, eta ahalik eta gehien aprobetxatzen saiatuko naiz”, dio joko antolatzaile durangarrak.

## Basque Ultra Traileko azken proba Durangaldetik igaroko da zapatuan

Silvia Trigueros irabazi ditu zirkuituko lehenengo hiru lasterketak

**> KIROLA** J.D. Basque Ultra Traila lau probek osatzen duten zirkuitua da eta asteburu honetan lehiatuko dute azkena. Gaur gauean Donostian hasita, zapatu arratsal-

dean helduko dira aurrenekoak Bilboko helmugara, 140 kilometro osatuta. Ibilbideko zati bat Durangaldetik igaroko da. Trabakutik Oizera sartu eta goizean zehar Garaiko herrigune-

tik igaroko dira apurka-apurka. Parte-hartzaileek hornidura puntua aurkituko dute bertan. Garai atzean utzita, korrikalariak Iurretatik, Durangotik (Landaederra) eta Zornotzatik (Belatzikieta) pasatuko dira Bilboko helmugara bidean.

### Trigueros lider dago

Emakumeetan Silvia Trigueros abadiñarra da proba irabazteko hautagai nagusia. Orain arte lehiatu diren hiru lasterketak berak irabazi ditu eta sailkapen orokorreko liderra da. Beraz, lau probak irabazita geratu daiteke txapeldun. Trigueros sasoi betean dago, oraintsu Tor des Geants Europako mendi probarik gogorrenetakoan erakutsi duen moduan. 330 kilometroko erronka bigarren amaitu zuen, 97 orduko ahalegina egin ostean.



Trigueros Bilbao-Gasteiz proban helmugara heldu zen unean.

## Juaristik Enduro proba irabazi du Arrasaten

Hankako lesio luzetik garaipenagaz bueltatu da



Gaizka Juaristi Arrasateko podiumean.

### > ENDURO

M.Z. / J.D. Gaizka Juaristi abadiñarrak Arrasateko II. Enduro proba irabazi zuen joan zen asteburuan, Master 30-40 mailan. Hile askoan geldirik eduki du hankako lesio batek eta Arrasatekoa berragerpena zuen. “Oso pozik nago lortutako garaipenagatik. Hala ere, badakit hau denboraldi honetan parte hartuko dudako lasterketa bakarra

izango dela seguraski”, adierazi du Juaristik.

Lasterketa “gogorra” izan zen, eguraldi txarrak ibilbidea lokaztu zuelako. Bestalde, antolakuntzak lasterketako tarte bi erakutsi ez zituenez, jaitsieretan gutxiago arriskatzera behartuta zeuden. “Horrek bere arriskua zuen, ererikoak saihesteko une oro adi joan behar genuen-eta”, gehitu du.



# “Zeelanda Berrian errugbia ulertzeko dugun modua ekartzen dit gogora DRTk”

Nesken entrenatzaile Muir Karak ilusioz hartu du Bizkaiko talderik gazteenetakoa gidatzeko ardura

## > ERRUGBIA J.D.

Muir Kara (Zeelanda Berria, 1972) pozik dago Durangon, emakumeen Nissan-Gaurisa talde nagusia entrenatzen. Ligako lehenengo partiduko porrotak (26-25, Bera Beraren zelaian) ere ez dio bekokia ilundu. Kontrara, oraindino gusturago egoteko arrazoiak eman dizkio. “Orain aste bi, puntu askogatik galdu genuen lagunarteko bat eta Bera Bera talde indartsuaren kontra azken unera arte izan genituen aukerak. Partidu itzela jokatu zuten”, azaldu du. “Ikas-teko gogotsu dagoen taldea da. Hori ez da beti gertatzen”, dio munduko ligarik garrantzitsuenetan jokatu eta entrenatu duen Karak.

Taldearen gaztetasuna da Portugaletetik —han bizi da— Durangora ilusioz etortzeko beste arrazoi bat. “Sekula ez dut hain talde gazterik izan. 17 eta 18 urteko jokalariek ditugu. 20 urtekoak ia bateranoak dira. Ni-retzat erronka bat da”, adierazi du. Durangon lehengai aproposa aurkitu du bere jakintzaren araberrako taldea moldatzeko.

Durango Rugby Taldean errugbia ulertzeko duten mo-



Zeelanda Berriko eta Ingalaterrako ligetan jokatu zuen. Euskadin, DRTz gainera, Getxo Rugby Taldean aritu zen.



Zapatuan, 15:30ean, Gaztediren kontra jokatu dute Arripausuetan.

duagaz erabat identifikatuta sentitzen da. Normala, Zeelanda Berrian errugbiak duen estatu-

sa kontuan hartuta. “Han errugbia kirol nagusia da. Jokalariak eta euren familia batzen ditu, ai-

ta-amak, aitona-amonak... Eta DRTn errugbia ulertzeko dagoen modua Zeelanda Berria gogoratzen dit”. Emakumeen taldeagaz eta bere inguruagaz “bide horretan sakontzeko” asmoa du.

2005-2006 denboraldian DRTko talde nagusian jokatu zuen. Orain, itzuleran, “hazi” egin den kluba aurkitu du. Bambino errugbi eskola jarri du adibidetzat. “Hainbeste ume izatea ikaragarria da klub batentzat, etorkizunera begirako albiste bikaina da”, gehitu du.

## ADITUAREN TXOKOA

**GOTZON GOMEZ BARRENETXEA**

Errugbia



## Katea ez da eten

DRTk 2016-17 denboraldian ospatu zuen bere 30. urteurrena. Ibilbide honetan hainbat aldaketa gertatu da, baina, zorionez, klubaren oinarriko xedea mantentzen dela agerian dago.

Zertaz ari naizen? Harrobien aldeko apustu sendoaz ari naiz, hau da, herriko edo eskualdeko jokalariz hornitzea klubaren talde guztiak.

Ostiralean DRTk egindako aurkezpen ekitaldian, argi eta garbi geratu zen klubak Durangoko eta eskualdeko gazteen aldeko apustua egin duela. Senior taldeetako argazkiak zehatz-mehatz aztertuko bagenitu, harriturik geldituko ginatke. Zergatik diot hau? Jokalari guztiak Durango edo inguruko herrietakoak direlako, harrobiko taldeetan hasi eta hezi direlako, eta agian garrantzitsuena, epe ertainean klubaren etorkizuna bermatzen dutelako. Mutilen kasuan, batez beste adina 22 urtekoa dela uste dut, hori “beterano” batzuek duten eskarmentua kontuan izanik. Nesken taldean, aldiz, batez bestekoa ez da 18 urtetara heltzen.

Errugbi eskolan 100 bat ume dabilta astero 6-14 urte arteko mailetan, eta zoragarria da Arripausueta zelaia ostiraleko nola dagoen ikustea. Berdin dio sexua, altuera, pisua edo abileziak, denek dute tokia, nesken presentzia ere aipatzekoa da, batez beste %23, eta hor egon daiteke arrakastaren arrazoi nagusia. 16 eta 18 urte azpiko taldeetan, durangarrek Elorriorekin batera jokatzeko dute eta, garrantzitsuena, azken urteetan hainbatek senior talderako saltoa eman dute.

Poztekoa da katea ez dela eten ikustea. Gora DRT!

## Domekan duatloi herrikoia egingo dute Durangon

### > DUATLOIA J. D.

Mugarra triatloi taldeak domekan antolatuko duen duatloi herrikoia 12. aldia egingo du aurten. Haurretatik nagusietara, adin guztientzako ibilbideak prestatu dituzte, ekimenaren helburu bat gaztetxoaren artean zaletasuna sustatzea delako.

Santa Ana Plaza izango da erdigunea. 11:00etan 7 urtera arteko umeen proba hasiko da, eta

segidan, 8 eta 14 urtera artekoena. Azken horiek 600 metroko saio bi egingo dituzte korrika eta hiru kilometroko beste bat bizikletan. Nagusien lasterketari 12:00etan ekingo diote: lau eta bi kilometroko saioak korrika eta 13 kilometroko bizikletan.

Izen-ematea (hiru euro nagusiak eta euro bat haurrak) egunean bertan egin daiteke, 09:00etatik aurrera.



Nagusien lasterketa 12:00etan hasiko da Santa Anatik. MugarraTT

“GLAMOUR HANDIKO URTEURRENA”

**6.400 €**

-tik aurrera  
Etxetresna elektrikoak barne

**URRIAREAREN 28ra arte**

**SCHMIDT ABADIÑO**

Murueta auzoa, 2/g - 178 lokala

Eroski saltoki-gunea - ABADIÑO

Tel.: 946 526 195

info@schmidt-abadiano.com

www.schmidt-cocinas.es

**SCHMIDT**

Cocinas y Muebles de Hogar



# ESTETIKA GIDA



**Rosana Garcia eta Izaskun Egia**  
Bihotzez

## Zetazko betile luzapenak eta Bok Bu masajea

Bihotzez zentroan xaboi eta kosmetika naturala, intsentsuak eta orotariko masajeak eskaintzen dituzte. Zetazko betile naturalak eta Bok Bu masajea dituzte nobedadeen artean. Horietarako, hitzordua hartzea eskatu dute.

### Zelakoak dira zetazko betile luzapenak?

Banan-banan ipintzen diren luzapenak dira, askotariko neurri eta kurbadurakoak. Bakoitzaren begiaren eta adierazpenaren arabera hautatzen dira. Urarekiko erresistenteak dira, eta hilabete inguru irauten dute. Orduan, luzapen horiek betetzera etortzen da jendea, berriro berriak ipini beharrean. Zetazkoak direnez, sintetikoek baino kalitate hobea dute. Zure betile propioa izatearen sentazioa edukitzen duzu zetazko luzapenak ipinita.

### Zertan oinarritzen da Bok Bu masajea?

Koreatik datorren masaje bat da Bok Bu estiloa. Sabelaldeko eremua era sakonean lantzen du, hor baitaude organo garrantzitsuenak eta gure energiaren erdigunea. Blokeo fisiko, psikiko eta emozionalak askatzen laguntzen du, energia, adimena eta izpiritua orekatzeko.



## ILE-APAINDEGIAK



## ESTETIKA ZENTROAK



**Profesionalik onenak zure zerbitzura!**



# Inmobiliariak

**AMBOTO**  
INMOBILIARIA  
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO  
Tel.: 946 813 562

## ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN

**DURANGO.** Bat, bi eta hiru logelako etxeak alokairuan. Hilean 600€-tik hasita.

## ETXEBIZITZAK SALGAI

- DURANGO.** San Fausto. Logela biko pisua, sukaldea, bainugela eta logela. Merkea
- BERRIZ.** Etxebizitza guztiz berriztua, 3 logelarekin, bainugela, sukaldea balkoiarekin, egongela balkoiarekin eta despentsa. Dotorea.
- DURANGO.** Francisco Ibarra. 4 logelako etxebizitza, 2 bainugela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta despentsa.
- ELORRIO.** 4 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea balkoiarekin, bainugela, eta garajea itxita.
- DURANGO. ARTEKALE.** Azken duplex-ak, logela bikoak, bi bainugelarekin. Prezioak 179.000 €-tik hasita.
- LEKEITIO.** 3 logelako etxebizitza, bainugela, sukaldea, egongela terrazarekin, garajea. Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.
- ABADIÑO.** Iturritxo. Logela bateko apartamentua, sukalde amerikarra-egongelarekin, bainugela, esekitokia, ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.
- DURANGO. ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO.** 2 logela, 2 bainugela, sukalde amerikarra, egongela, garaje itxia eta terraza ikaragarria.
- ATXONDO.** Etxebizitza 2 logelarekin, bainugela, despentsa, sukaldea esekitokiarekin, eta egongela.
- ZALDIBAR.** Etxebizitza, 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela balkoiarekin, guztiz berriztatua. Horrez gain, trastelekua.

## LURSAILAK SALGAI

- ABADIÑO.** 1.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitzeko baimenarekin. Zonalde egokia.
- BERRIZ.** 10.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila. Zelai ederra sarbide oso onarekin.
- IURRETA.** 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.
- ABADIÑO.** Bifamiliarra eraikitzeko lursaila, 1.000 m<sup>2</sup>. Informazioa personalizatua.
- AMOREBIETA. EUBA.** Txalek bifamiliar bat eraikitzeko lursaila, 3.000 m<sup>2</sup> inguruko azalerarekin.

## BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

- ELORRIO.** Aldape auzoa. Baserría berriztatze, 3 hektareako lursaila. Prezioa 160.000 €
- ATXONDO.** Baserrí ikusgarria Martza auzoan, 15.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila baserríaren inguruan. Teilatu berria. Zonalde pribilegiatua.
- BERRIZ.** B<sup>o</sup> Murgoitio. Bifamiliar ederra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 6 bainugela, garaje bikoitza, 12.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila. Kokapen ezin hobea, Anbotora begira.
- MENDATA.** Lamikiz auzunea. Baserrí bifamiliarra berriztatze. Orientazio pribilegiatua, oso eguzkitsua. Prezio interesgarria.
- DURANGO.** Eraikin atxiki ederra, izkinakoa, guztiz hornitua. Ia berria, estreinatze.
- BERRIZ.** Baserrí ederra, Murgoitio zonaldean. Hiru hektareako landa baserrí ondoan

## BULEGOAK ALOKAIUAN

- ABADIÑO.** 40 m<sup>2</sup>-tik gorako bulegoak, 350€-tik hasita.
- Alde zaharrea, tamaina ezberdineko lokalak alokagai ditugu. Etorri eta galdetu

**ISD** Inmobiliaria del Duranguesado  
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666  
www.inmoduranguesado.com  
inmoduranguesado@gmail.com

## ETXEBIZITZAK SALGAI

**DURANGO**

### FRAY JUAN DE ZUMARRAGA



- 67,18 m<sup>2</sup> erabilgarriko etxebizitza. 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, bainugela, balkoia eta ganbara. Etxebizitza argitsua. E.E.Z.: zain. **160.000€**

### SAN FRANTZISKO



- 73 m<sup>2</sup> erabilgarri. 3 logela, bainugela, sukaldea jarrita, egongela eta balkoia. Horma armairuak ditu. Garajea barne. E.E.Z.: zain. **155.000€**

### KALEBARRIA



- 68 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza. 3 logela, egongela, sukaldea jarrita eta bainugela. Leihoak aldatuta eta berogailua. E.E.Z.: F. **125.000€**

### ARAMOTZ



- 63,72 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza. 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, despentsa, bainugela eta balkoia. Fatxada eta teilatua konponduta. E.E.Z.: G. **96.000€**

### MATIENA

### TRAÑABARREN



- Orokorrean oso egoera onean. 70 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza: sukaldea, egongela, bainugela eta hiru logela. Bi balkoi-terrazza dauzka. E.E.Z.: G. **134.000€**

### ZALDIBAR

### ZALDIBAR



- 74 m<sup>2</sup> erabilgarri. 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, bainugela bat eta balkoia. Berriztatua. Berogailuarekin. Oso egoera onean. E.E.Z.: zain. **99.000€**



**Fernando Uribe**  
AGENCIA INMOBILIARIA  
Barrenkalea, 15 behea • DURANGO  
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

## ETXEBIZITZAK SALGAI

**DURANGO**

- ARAMOTZ** 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia. **129.000€** / E.E.Z.=E
- ARAMOTZ** 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. **90.000€** / E.E.Z.=G
- ASK. ETORBIDEA** 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, despentsa. **146.000€** / E.E.Z.=F
- LANDAKO ETORBIDEA** 2 logela, sukalde-jangela, egongela, 2 bainugela, 2 balkoi. Garajea. **267.800€** / E.E.Z.=E
- BARRENKALEA** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. **120.300€** / E.E.Z.=G
- BERNARDO GABIOLA** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. **85.000€** / E.E.Z.=E
- ERRENTXU** 4 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia. **210.000€** / E.E.Z.=E
- EZKURDI** 4 logela, sukaldea, egongela, 3 bainugela. **321.500€** / E.E.Z.=F
- FRANCISCO IBARRA** 3 logela, sukadea, egongela, 2 bainugela, balkoia, despentsa. **230.000€** / E.E.Z.=F
- GOIENKALEA** 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, jantzigela. **114.000€** / E.E.Z.=G
- JOXE MIEL BARAND.** 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoia. Garajea. **Lehen 428.900€ - Orain 400.000€** / E.E.Z.=D
- JUAN DE OLAZARAN** 3 logela, sukaldea, 2 bainugela, egongela, terraza. Garajea. **376.000€** / E.E.Z.=B
- JUAN DE ITZIAR** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. **Lehen 90.000€ / Orain 74.000€** E.E.Z.=G
- KIRIKIÑO KALEA** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. **77.600€** / E.E.Z.=G
- KOMENTU** 3 logela, sukaldea, egongela, terraza. **135.000€** / E.E.Z.=G
- MIKELDI** 4 logela, sukaldea, egongela, bainugela, Komunak, 2 balkoi. **200.000€** / E.E.Z.=E
- MIKELDI** 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. **270.000€** / E.E.Z.=E
- MONTEVIDEO** 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. **230.000€** / E.E.Z.=F
- PAGASARRI** 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, esekitokia, 2 balkoi. Garajea. **260.000€** / E.E.Z.=F
- PLATERUEN** 4 logela, sukaldea, egongela, 3 bainugela. Garajea. **270.000€** / E.E.Z.=E
- UNDA-TORRE** 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. **85.000€** / E.E.Z.=G
- ZUMALAKARREGUI** 5 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 4 bainugela. Garajea. **695.000€** / E.E.Z.=E

### ABADIÑO

- ARLOZABAL** 2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. Garajea. **Lehen 155.000€ - Orain 153.000€** / E.E.Z.=E
- FERIALEKU** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Garajea. **Lehen 190.000€ - Orain 175.000€** / E.E.Z.=G
- ZELETABE** 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. Garajea. **309.000€** / E.E.Z.=F
- ZELETABE** 3 logela, egongela, sukaldea, 3 bainugela, terraza. Garajea. **Lehen 342.576€ - Orain 310.000€**. E.E.Z.=E

### MATIENA

- TRAÑABARREN** 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, 2 balkoi, despentsa. **Lehen 143.000€ - Orain 134.000€** / E.E.Z.=E

- [www.fernandouribe.es](http://www.fernandouribe.es) -

**ETXETXO**  
G. INMOBILIARIA  
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO  
www.inmoetxetxo.com

## ETXEBIZITZAK SALGAI

**MURUETA TORRE**



- 2 logela. Bainugela. Sukaldea. Esekutokia. Egongela. Terraza. Trastelekua eta garajea. **269.000€**

### SAN IGNACIO



- 2 logela. Bainugela. Sukaldea. Esekutokia. Egongela. **ORAIN. 136.000€**

### TXIBITENA



- 100m<sup>2</sup>. 4 logela. 2 bainugela. Sukaldea. Esekutokia. Egongela zabala. Ganbara. Garajea. **209.000€**

### ABADIÑO



- 90 m<sup>2</sup>. 3 logela. 2 Bainugela. Egongela terrazarekin. Sukaldea. Ganbara. Garajea itxita. Eguzkitsua. Kanpora begira. DENA. **155.000€**

### MIKELDI



- APARTAMENTUA. Erdi-berria. Erdialdean. Dena kanpora begira. Altua. Ganbararekin. **ORAIN. 148.000€**

### ABADIÑO



- 2 logela. 2 bainugela. Sukaldea. Esekutokia. Egongela. Trastelekua eta garajea. **153.000€**

**LOKALAK ETA ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN. KONTSULTATU.**  
[www.inmoetxetxo.com](http://www.inmoetxetxo.com)



# anboto.iragarki**laburrak**.com

1 HIGIEZINAK	5 IBILGAILUAK
2 TEKNOLOGIA	6 HARREMANAK
3 LANA/NEGOZIOAK	7 AISIA/KIROLA
4 DENETARIK	8 FAMILIA/ETXEA

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

## NORBANAKOEN IRAGARKIAK

**Interneten eta paperean, doan:** Partikularrentzat - Erregistratu [www.anboto.iragarkiaburrak.com](http://www.anboto.iragarkiaburrak.com) webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio eta bertan anboto aukeratu) edo bidali mezua: [anboto@anboto.org](mailto:anboto@anboto.org).

**Paperean, ordainduta:** Enpresentzat - Iragarki laburretatik bereizuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

## Higiezinak

### ETXEBIZITZAK

#### SALDU

**Zornotza.** 3 logela, egongela 1, sukaldia, 2 bainugela, ganbara, balkoia, gasoil berogailua eta teilatu berria. 345 m<sup>2</sup>-ko lursailarekin. Aukera paregabea! Tel.: 695-70 18 58. Posta: idurrel3@hotmail.com.

#### EROSI

**Durungaldea.** Durungaldean berrizteko dagoen baserri baten bila nabil, lursail apur batekin. Ez zait inporta baserria zein egoeratan dagoen. Gehienez, 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel.: 618-93 62 14.

#### ERRENTAN EMAN

**Elorrio.** 3 logela, 2 komun, igogailua, garajea txokoarekin eta berdegunea. Oso leku onean. Harremanetarako, Tel.: 675-70 15 30.

#### ERRENTAN HARTU

**Durungaldea.** 24 urteko neska gazte eta arduratsua naiz, Zornotzan lanean hasi berri dena eta han inguruan pisu bila nabil. Durango-Gernika-Zornotza inguruan bila hastekotan. Pisua edota pisukide bila nabil. Interesatzen bazaizu, edo interesa dakiokkeen inor ezagutuko bazenu, deitu! Tel.: 638-90 86 10.

## LOKALAK

#### ERRENTAN EMAN

**Durango.** 40 m<sup>2</sup>-ko lokala alokagai Antso Estegiz kalean, Durangon. Zabala, argitsua eta erabilera ugari. Egokia bulego edo alokailu serioetarako. 350 euro hilean. Tel.: 635-74 59 02

## Lana - negozioak

### LAN ESKARIAK

#### ETXEKO LANAK

**Durango.** Esperientzia handiko emakumeak plantxa zein etxeko lanak orduka egiteko eskaintzen du bere burua. Tel.: 645 70 68 39

#### PERTSONAK ZAINDU

**Durungaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko zein kanpoko langilea. Esperientzia daukat. Tel.: 661-12 73 28

**Durungaldea.** Bikote gaztea lan bila nabil baserriak zaintzen edo pertsona nagusiak zaintzen. Tel.: 602-83 18 18 Tel.: 632- 92 71 94.

**Durungaldea.** Lan bila nabil pertsona

nagusiak zaintzen. Asteburuetan ere lan egiteko prest. Tel.: 631-19 79 51.

**Durungaldea.** Neska gaztea lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, baita garbiketa lanak egiten ere. Barneko zein kanpoko langilea, eskarmentu eta erreferentziarekin. Tel.: 637-16 97 32.

**Durungaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen edo plantxa egiten. Arratsaldetan egin nahiko nuke lan. Tel.: 697-49 20 58.

**Durungaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak zein umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko, kanpoko edo orduka langile moduan lan egiteko prest. Tel.: 631-85 10 93.

**Durungaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, zein garbiketa lanetan. Kanpoko, barneko zein orduka langilea. Tel.: 632-92 71 94.

**Durungaldea.** Neska euskalduna ikasketekin eta esperientziarekin umeak zaintzeko zein etxeko lanak egiteko prest dago. Tel.: 662-36 41 67 Tel.: 946-81 39 40.

**Durungaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak zein umeak zaintzen. Orduka zein gauzez lan egiteko prest. Tel.: 612-24 53 26.

**Durungaldea.** Lan bila nabil nagusiak edo umeak zaintzen edo garbiketan. Goiz, arratsalde zein egun osoz lan egiteko prest. Esperientzia zabala. Tel.: 632-50 25 01.

**Durungaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, baita garbiketa lanetan ere. Tel.: 632-29 16 73.

**Durungaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, baita garbiketa lanak egiten ere. Barneko, kanpoko zein orduka langilea. Tel.: 631-70 05 73.

**Durungaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Kanpoko, barneko edo orduka langile moduan. Tel.: 631-11 07 16.

**Durungaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Kanpoko zein barneko langile moduan. Tel.: 602-08 96 62.

**Durungaldea.** Lan bila nabil nagusiak edo umeak zaintzen. Kanpoko zein barneko langile moduan. Egunez zein gauzez. Paperak behar bezala ditut. Tel.: 631-90 19 87 edo

602-08 96 62

**Durungaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen zein garbiketa lanetan. Kanpoko, barneko zein orduka langile moduan. Tel.: 603-75 05 18.

**Durungaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak zein umeak zaintzen. Baita garbiketa lanak egiten ere. Barneko, kanpoko edo orduka langilea. Tel.: 605-22 13 56.

**Durungaldea.** Lan bila nabil nagusiak edo umeak zaintzen. Orduka, barneko edo kanpoko langile moduan. Berehalak hasteko moduan. Tel.: 632-44 11 55.

**Durungaldea.** Haurrak zaindu eta klase partikularrak ematen ditut. Hezitzaile moduan lan egin izan dut. Kontaktuan jartzeko: 630 080 220.

**Durungaldea.** Emakume arduratsua lan bila nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketan ere. Kanpoko, barneko zein orduka langilea. Tel.: 632-63 60 69.

**Durungaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko, kanpoko zein orduka langilea. Tel.: 631-44 23 77.

**Durungaldea.** Garbiketan edo pertsona nagusiak zaintzen lan bila nabil. Lanaldi erdian edo orduka. Tel.: 631- 28 71 29.

**Durungaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko zein kanpoko langilea. Tel.: 602-87 49 24.

**Durungaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita jostun laguntzaile ere. Barneko zein kanpoko langilea. Orduka zein gauzez lan egiteko prest. Tel.: 631-37 88 15.

**Durungaldea.** Lan bila nagusiak zaintzen. Arratsaldetan. Tel.: 697-49 20 58.

**Durungaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko langile moduan. Tel.: 632-06 11 03.

**Durungaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko zein kanpoko langile moduan, edo orduka. Tel.: 632- 43 64 62.

**Durungaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen zein

garbiketa lanetan. Barneko zein kanpoko langilea. Tel.: 632-41 05 61.

**Durungaldea.** Lan bila nabil etxeko lanak egiten. Orduka langile moduan. Tel.: 655-85 79 95.

**Durungaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko zein kanpoko langilea. Asteburuetan lan egiteko prest. Esperientzia daukat. Tel.: 631-95 28 27.

#### IRAKASKUNTZA

**Durango.** LHko ikasleentzat eskola partikularrak ematen ditut arratsaldeetan, liburutegian nahiz nire etxean. Klaseak umeen beharretara diseinatzen ditut. Lehen Hezkuntzan graduatua eta EGAduna naiz, edozein adinetako umeekin esperientzia handia duena. Informazio gehiagorik nahi izanez gero, jarri harremanetan: [nereasan17@gmail.com](mailto:nereasan17@gmail.com)

**Durango.** Arratsaldetan LHko ikasleei klase partikularrak emateko prest, Durangon. HHn eta LHn graduatua. EGA eta ingeles tituluak ere badauzkat. Esperientziaduna. Harremanetan jartzeko: [jokin396@gmail.com](mailto:jokin396@gmail.com)

**Elorrio.** Matematikako klase partikularrak ematen ditut DBH 1. eta 2. mailetan. Nire etxean. Banakako zein talde txikietako klaseak. Interesa baduzu, deitu konpromisorik gabe: 628 294 806.

**Durungaldea.** Euskalduna, eskola partikularrak emateko prest nago. Tel.: 697-32 92 88.

**Durungaldea.** Neska euskalduna, administrazio ikasketak eta esperientzia duena, Lehen Hezkuntzan eta DBH partikularrak banaka zein talde txikietan emateko prest. Tel.: 662-36 41 67 Tel.: 946-81 39 40

#### GAINERAKOAK

**Durungaldea.** Lan bila nabil lorezaintzan, baserriak edo abereak zaintzen, garbiketa lanetan edo gizon nagusiak zaintzen. Tel.: 602-85 05 05

**Durungaldea.** Lan bila nabil eraikuntza zein lorezaintza lanetan. Baita pertsona nagusiak zaintzen ere. Barneko, kanpoko edo orduka langile moduan. Tel.: 602-83 18 18.

#### LAN ESKAINTZAK

#### OSTALARITZA

**Iurreta.** Zerbitzari bila gabiltza barran eta jangelan lan egiteko. Curriculumak betixu@gmail.com helbidera bidali

edo 946- 81 78 47 zenbakira deitu.

## Denetarik

### SALDU / EROSI

**BI lanpara saltzen ditut.** Logelako lanpara bat eta txoko baterako brontzeko lanpara bat salgai ditut Otxandion. Tel.: 675-71 72 83.

**Egurrezko gurdia salgai.** Idi parearen egurrezko gurdia salgai. Egoera onean eta azken matrikulazioa 1965ean. 700 euro. Argazkiak whatsapp bidez. Tel.: 633-66 64 92.

**Eskuz egindako tokilak.** Eskuz egindako artilezko tapukak, bufandak eta gorroak. Tamaina eta kolore ezberdinetakoak. Enkarguz ere egiten dira. Tel.: 946-58 32 90.

**Intxaurrak salgai.** Norberak batu beharreko intxaurrak Mallabian. 2,5 euro batutako kilo bakoitzeko. Ekologikoak dira. Taldean etortzea posiblea da. Tel.: 675-71 34 01.

**Txokoa.** Durangoko Zingilipurka alkarteko kide izateko partizipazioa salgai 6.000 eurotan. Tel.: 607-30 78 87.

#### EMAN / HARTU

### Artzain-txakurkumeak.

Artzain-txakurkumeak oparitzen dira. Tel.: 688 814 225.

### BI katakume oparitzen ditut.

Bi katakume zuri erregalaten ditut. Tel.: 722-22 23 38.

**Sukalde diseinatzaile-saltzailea behar da.**

Gutxienez 2-3 urteko esperientzia baloratuko da.

Tel.: 605-74 01 76.


**Abadiñoako Abarketeruena tabernan sukaldaria behar da.**

Menuan eta kartan esperientzia izatea baloratuko da. Bidali curriculumak: [abarketeruena@gmail.com](mailto:abarketeruena@gmail.com) helbidera edo deitu 660-18 74 05 zenbakira.



# AGENDA

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Urriaren 6an, 20:30ean,  
Elorriko Arriolan

## Hariak

Ertza taldeak 'Hariak' ikuskizuna eskainiko du, gaur, Elorriko antzokian. Natalia de Miguel, Thiago Luiz Almeida, Caio Henrique de Souza, María Andrés eta Claudio Rojas dantzariak arituko dira oholtzan.

### Musika

#### :: ELORRIO

URRIAREN 7an

**22:30ean**, Tres 41 + Thanx + Teles Ohnepal + Estricalla, Gaztetxean.

#### :: ZORNOTZA

URRIAREN 6an

**20:00etan**, 'Harriaren hiztegia', Zornotza Aretoan.

### Urteurrena

#### :: ELORRIO (Liburutegiaren 50. urteurrena)

URRIAREN 6an

**17:00etan**, Irakurketa eta marrazketa txokoak, collage tailerra eta Shakti Olaizolaren emanaldia, herriko plazan.

### Erakusketa

#### :: ABADIÑO

URRIAREN 7an eta 8an

XXVI. Perretxiko erakusketa, Traña-Matienako Errota kultur etxean.

#### :: BERRIZ

URRIAREN 19ra arte

Ane Pikaza ilustratzailearen 'Landareak, lumak eta beste inbasio batzuk', Kultur Etxean.

#### :: DURANGO

URRIAREN 15era arte

XVII. Durango Hiria lehiaketako margolanak, Ezkurdiko aretoan.

URRIAREN 22ra arte

'Durango jaietan' argazki erakusketa, San Agustingo sarreran.

URRIAN ZEHAR

'Paisaia oroimenean' erakusketa, Kurutzasantu Museoa.

### Antzerkia

#### :: DURANGO

URRIAREN 7an

**20:00etan**, 'Hambre', San Agustin kulturunean.

#### :: ELORRIO

URRIAREN 13an

**20:30ean**, 'Atte hil aurretik', Arriolan.

#### :: ZORNOTZA

URRIAREN 7an

**20:00etan**, 'Hotaru', Zornotza Aretoan.

### Jaiak

#### :: BERRIZ (San Fausto)

URRIAREN 7an

**18:00etan**, Donien Atxa ipintzea. Bertarutzen direnentzat jan-edana banatuko dute.

**20:00etan**, Aire ahizpak kontzertuan.

#### URRIAREN 8an

**12:00etan**, meza. Ondoren, Iremiñe dantza taldea bolo jokoa eta odoloste-jana.

### Dantza

#### :: DURANGO

URRIAREN 3an

**18:00etan**, AIKoren ikastaroa, Plateruenean.

URRIAREN 6an

**20:30ean**, Khuzayma taldearen 'Raices' ikuskizuna, San Agustin kulturunean.

#### :: ELORRIO

URRIAREN 6an

**20:30ean**, 'Hariak', Arriolan.

### Ikastaroa

#### :: ABADIÑO

2017-2018 ikasturterako, Jabekuntza Eskolako askotariko ikastaroetan izen-ematea, udaletxean.

#### :: DURANGO

URRIAREN 10era arte

Durangoko Andraguneak eskaintzen dituen emakumeentzako jabekuntza ikastaroetan izena emateko aukera. Informazioa: Andragunean.

Barikuro

**20:30-22:30** Biodantza ikastaroa, Kirol Errotan. Izen-ematea: 610937301 edo biodanzadurango@gmail.com.

#### :: ELORRIO

Udalak udazkenerako antolatu dituen Jabekuntza Eskolako ikastaroetan izen-ematea: udaletxeko HAZ edo 946570809.

### Zinema

#### :: ELORRIO

URRIAREN 11n

**19:30ean**, 'La promesa' dokumentala, Iturri kultur etxean.

### Berbaldia

#### :: ELORRIO

URRIAREN 10ean

**18:00etan**, Eva Gosenje nutrizionistaren berbaldia: 'Elikagaien nutrizio-balorea', Iturri kultur etxean.

### Mendi Martxa

#### :: ZALDIBAR

URRIAREN 8an

**09:00etan**, Zaldibarko IV. Mendi martxa herrikoia (13 km), udaletxeko plazatik irtenda. Amaieran luntxa eskainiko diete parte hartzen dutenei.

### Jaialdia

#### :: ZORNOTZA

URRIAREN 6tik 8ra

**Egun osoan**, Mangamore jaialdia, Zornotzan.



### ZINEMA

#### :: BERRIZ KULTUR ETXEA

Nur eta herensugearen tenplua

. barikua 13: 18:00

#### :: DURANGO ZUGAZA

Blade Runner

. barikua 6: 19:00-22:00  
. zapatua 7: 16:30-19:30-22:30  
. domeka 8: 17:30-20:30  
. astelehena 9: 18:00-20:30  
. martitzena 10: 20:00  
. eguaztena 11: 20:00

Toc Toc

. barikua 6: 19:30-22:00  
. zapatua 7: 17:00-19:30-22:30  
. domeka 8: 17:00-19:15-21:30  
. astelehena 9: 18:30-21:00  
. martitzena 10: 20:00  
. eguaztena 11: 20:00

La montaña entre nosotros

. barikua 6: 19:30-22:30  
. zapatua 7: 19:30-22:30  
. domeka 8: 17:00-19:15-21:30  
. astelehena 9: 18:30-21:00  
. martitzena 10: 20:00  
. eguaztena 11: 20:00

#### :: ELORRIO ARRIOLA

Verano 1993

. zapatua 7: 22:00  
. domeka 8: 20:00  
. astelehena 9: 20:00

Tadeo Jones 2. El secreto del rey Midas

. domeka 8: 17:00

#### :: ZORNOTZA ARETOA

Operación Concha

. zapatua 7: 22:00  
. domeka 8: 20:00  
. astelehena 9: 20:15

Gatos. Un viaje de vuelta a casa

. domeka 8: 17:00

Pieles

. martitzena 10: 20:15


#### Irailaren 7an, 20:00etan, Zornotza Aretoan

## 'Hotaru'

Mangamore jaialdiaren barruko antzerki emanaldia eskainiko du Scena 13 taldeak, bihar, Zornotzan. Itzalen antzerkiak, zuzeneko musikak, Japoniako kultura klasikoaren hainbat diziplinak eta kabuki dantzak osatzen dute, besteak beste, 'Hotaru' ikuskizuna.







**> BOTIKAK**

<b>BARIKUA, 6</b> · 09:00-09:00	<b>Melero, Rosa Mari</b> San Pedro 31 - Zornotza
<b>Irigoien</b> Bixente Kapanaga 3 - Iurreta	09:00-22:00
<b>Melero, Rosa Mari</b> San Pedro 31 - Zornotza	<b>Sarasketa, Diego</b> Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
09:00-22:00	<b>ASTELEHENA, 9</b> · 09:00-09:00
<b>Sanchez, Miren Itziar</b> Urbitate poligonoa, 4 P8, Abadiño	<b>Sagastizabal</b> Askatasun etorb. 19 - Durango
<b>Iruarrizaga, Karmele</b> San Miguel 15 - Zornotza	09:00-22:00
<b>Sarasketa, Diego</b> Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	<b>Sanchez, Miren Itziar</b> Urbitate poligonoa, 4 P8, Abadiño
<b>ZAPATUA, 7</b> · 09:00-09:00	<b>Sarasketa, Diego</b> Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
<b>Gaztelumendi</b> J.A. Abasolo 2 - Durango	<b>Iruarrizaga, Karmele</b> San Miguel 15 - Zornotza
<b>Melero, Rosa Mari</b> San Pedro 31 - Zornotza	<b>MARTITZENA, 10</b> · 09:00-09:00
09:00-13:30	<b>De Diego</b> Intxaurrondo 22. - Durango
<b>Campillo</b> Montevideo etorb. 24 - Durango	<b>Sarasketa, Diego</b> Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
<b>Sagastizabal</b> Askatasun etorb. 19 - Durango	09:00-22:00
<b>Navarro</b> Artekalea 6 - Durango	<b>Sanchez, Miren Itziar</b> Urbitate poligonoa, 4 P8, Abadiño
<b>De Diego</b> Intxaurrondo 22. - Durango	<b>Iruarrizaga, Karmele</b> San Miguel 15 - Zornotza
<b>Unamunzaga</b> Muruetatorre 2C - Durango	<b>Sarasketa, Diego</b> Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
<b>Bazan Diaz</b> Uribarri 5 - Durango	<b>EGUAZTENA, 11</b> 09:00-09:00
<b>Balenciaga</b> Ezkurdi plaza 8 - Durango	<b>Balenciaga</b> Ezkurdi plaza 8 - Durango
<b>Larrañaga-Balentiaga</b> Berrio-Otxoa 6 - Elorrio	<b>Sarasketa, Diego</b> Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
<b>Bartolome</b> Gabiola 2 - Berriz	09:00-22:00
<b>Eguren, Isabel</b> Trañabarren 15 - Abadiño	<b>Sanchez, Miren Itziar</b> Urbitate poligonoa, 4 P8, Abadiño
<b>Melero, Rosa Mari</b> San Pedro 31 - Zornotza	<b>Sarasketa, Diego</b> Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
<b>Iruarrizaga, Karmele</b> San Miguel 15 - Zornotza	<b>Iruarrizaga, Karmele</b> San Miguel 15 - Zornotza
09:00-14:00	<b>EGUENA, 12</b> · 09:00-09:00
<b>Irigoien</b> Bixente Kapanaga 3 - Iurreta	<b>Gaztelumendi</b> J.A. Abasolo 2 - Durango
09:00-22:00	<b>Sarasketa, Diego</b> Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
<b>Sanchez, Miren Itziar</b> Urbitate poligonoa, 4 P8, Abadiño	09:00-22:00
<b>Sarasketa, Diego</b> Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	<b>Sarasketa, Diego</b> Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
<b>DOMEKA, 8</b> · 09:00-09:00	
<b>Campillo</b> Montevideo etorb. 24 - Durango	

**> ZORION AGURRAK**

✉ [zorionak@anboto.org](mailto:zorionak@anboto.org)  
eguzitrenko 14:00ak arteko epea

**Ermodo, 11 DURANGO**  
Tel.: 946 201 663  
[gozatudurango@gmail.com](mailto:gozatudurango@gmail.com)

**f Gozatu Gozotegia**

Zorionak, **Aiora (691. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.



> Zertan ote gabiltza? Marmitako on bat prestatzeko lanean. Bazatozte? Zorionak, bikote, guraso eta lagunuen partez.



> Zapatuen **Amatzako Etxaniztarrak** kriston egune pasau gendun, kostata baina azkenien 64 lagun elkartu giñen! Ia hurrenguen zenbaki horrek gora eiten dauen! Aupa Etxaniztarrak!



> Zapatuan 1976tik 2016. urtera arte Durangoko txupinero/txupinera izan garen 25 herritar bazkaltzeko batuko gara. Jaietarako indarrak hartzeko prest gaude!



> Zorixonak, artista! Zu danai adarra jotzen ta azkenien beittu "el cazador cazado". Lokalekuen partez egun izugarrixe pasatu ta mosu erraldoie! Disfrutau, **Mikelo**!

**> EGURALDIA**

ZAPATUA	20° / 7°	☀️	MARTITZENA	22° / 11°	☁️
DOMEKA	21° / 10°	☀️	EGUAZTENA	24° / 12°	☁️
ASTELEHENA	22° / 9°	☁️	EGUENA	25° / 13°	☀️

## Anbotorenlagunak

IBARRA SAGARDOTEGIAK emandako 4 pertsonentzako menua zozkatuko dugu Anbotoren Lagunen artean. Zorte on!

**Anboto Komunikabideak**  
Tel.: 946 816 558 - [www.anboto.org](http://www.anboto.org) - [lagunak@anboto.org](mailto:lagunak@anboto.org)

**AURREKO ASTEKO ZOKKETAREN IRABAZLEA GAU-TUK emandako burkoa**

**AITOR MEZO ETXEBARRIA**

**ZORIONAK!**



## “Nire ametsa beiragune bat sortzea da, lan egiteko modu hau ez dadin desagertu”

Duela bi urtetik hona bere tailerra du Turinen (Italia) beira-putzegile durangar honek

**> AKUILUA** Aitziber Basauri  
Hamarkada da Italian bizi dela. Gustura dago bertan, leku “perfekturik” existitzen ez dela dioen arren. Desagertzeaz dagoen ogibidea garatzea lortu du: beira-putzegilearena. Kale-merkatuetan, azoketan, zenbait dendatan edo erakustaldiak ematera doanean saltzzen ditu bere lanak Garciak, besteak beste.

**Nondik datorkizu ofizioa?**  
Ustekabean hasi nintzen. Edinburgora (Eskozia) joan nintzen ingelesa ikastera, eta bost urteren ostean, beira-diseinuan graduatuta nengoen. Beiragile ikastaro bat egin ostean, Edinburgoko Arte Eskolan ikasi nuen. Han puztu nuen lehenengoz beira, eta ikusi nuen hura zela nire bizitza. 2007an, ikasketak amaitzean, Veneziara joan nintzen; Davide Salvadoregaz ikasi nuen han. Italiarra eta eskoziarra den neska batezaz maitemintzeak ere izan zuen eragina. Baina, batez ere, beira puzteak maitemindu ninduen.

**Veneziako urmaeleko beira oso famatua da.**  
Hala da, bai, baina desagertzen ari da. Asko garatu dute beira-lanketa, eta askotariko forma, kolore eta konposizioak sortzeko teknika mordoa sortu dituzte. Nik erabiltzen dudan teknika, adibidez, 1500ekoa da.

**Zein da teknika hori?**  
Murrina famatuertarako erabiltzen dena —koloretako irudi eta ereduak sortzeko teknika—. *Millefiori*-a da famatuena.



**Ikasteko ogibide zaila da beira-putzegilearena?**

2003an sartu nintzen mundu honetan eta 2009an hasi nintzen bakarrik lanean. Hala ere, ezer gutxi dakit. Beira-puztea egiten saiatu naizen gauzarik zailena da. Behin eta berriz perla berdina eginda ere eragin handia du emozionalki edo fisikoki nola zauden, nor daukazuun alboan, eguraldiak... denak du eragina puzte horretan. Oso zaila da. Materiala ulertu ahal izateko, askotan egin behar da: izan ere, beira mugimenduan dagoela lantzen duzu —bizirik dagoela diogu guk— eta zenbat eta gehiago mugitu, orduan eta zailagoa da menperatzea; dena den, aberasgarriagoa ere bada.

**Arriskutsua ere izango da**  
1.100 graduan ari zara lanean metalezko barra baten izkinan. Baina horretan dabilenak badaki nola egin. Ez naiz inoiz erre beiragaz; erremintekin bai, ostera. Hala ere, beira sortzeko nahasketa, sortzen den hautsa arnastea arriskutsua da. 1.300 gradutik gorako tenperaturan *kozinatzen* da hauts hori labean. Baina nik ez dut beira sortzen.

**Erosi egiten duzu?**  
Bai. Koloretako barratxoak erabiltzen ditut. Modu tradizionalan jarduteko, labea 24 orduan egon behar da martxan, eguneroko. Muranon, adibidez, urtean behin amatatzen dute, abuztuan, mantentze-lanak egiteko.

**Nolako piezak egiten dituzu?**

Bitxiak eta etxerako apaingarriak egiten ditut: edalontziak, botilak... Beirazko perla berezitu batzuk ere bai; Muranon baino ez dira horrela egiten. Teknikaren sortzailegaz, Davide Salvadoregaz, ikasi nuen. Urte bikoetan egin nuen beragaz Muranon.

**Nola lantzen dituzu?**

Koloreak aukeratu —gutxienez 20— eta zeramika-plaka batean jartzen ditut barratxoak. Erorrion egin nuen labe txiki batean sartzen dut gero plaka hori, barratxoak elkar itsasteko. 600-700 bat gradutan lortuko dut hori. Hala ere, 1.000-1.100 gradura heldu arte itxarongo dut, puzte egiteko barragaz hartu arte. Gero, beira kontrolatu ahal izateko, mahai baten gainean utziko dut. Beira itxi eta prest gaude pieza lantzeko. Astean birritan egiten dut beira puztea, nahi baino gutxiago.

**Ikastaroak ere ematen dituzu?**

Bai, horretan hasi naiz. Baina nire ametsa beiragune bat sortzea da, lan egiteko modu hau, beira-putzegilearena, ez dadin desagertu, eta gastuak partekatuta beira-putzegileek euren jardunerako leku bat izan dezaten. Elkar laguntzeko lekua izatea gura nuke eta edozein teknika erabilia beira lantzeko aukera ematen duen lekua. Beiraren elkarte bat sortu gura nuke.

**Desagertzen ari den ogibidea da beira-putzegilearena?**

Bai. Ikasteko zaila delako, denbora mordoa behar delako menperatzeko. Eta garestia da.

### LAUHORTZA

**UXUNE MARTINEZ MAZAGA**

Soziologoa



#### Espainia, alderantziz proportzionala

Politikaz zerbait ikasi badut ere, ez dut aurkitzen nire garunean artxibatutako teoria egokirik egunotan ikusitakoa azaltzeko. Politikatik kanpo beste alor batzuetan ikusi dut argia; esaterako, matematikan. Magnitude matematikoa neurgarria den multzo bateko objektuei ematen zaien banakako balioa da. Magnitude horien ezaugarrietako bat da konparagarriak direla: “hau baino gehiago”, “gutxiago”, “honen berdina”. Horrez gain, magnitudeak zuzenki proportzionalak izan daitezke edota alderantziz proportzionalak. Bigarrenaren kasuan, “gehiagori” gutxiago dagokio edota “gutxiagori” gehiago. Adibidez, zenbat eta abiadura gehiago denbora gutxiago tardatuko dugu distantzia bat egiten.

Urriaren lehen Kataluniako erreferendumean Espainiak haren magnitudea erakutsi du, alderantziz proportzionala da. Zenbat eta konbergentzia politiko gehiago behar, are eta elkarrizketa gutxiago bideratu du. Zenbat eta ardua eta errespetu gehiagoz jokatu behar, begirune gutxiago erakutsi du. Sen ona behar zenean are eta fundamentu eskasagoa.

“Eseri-eta-itxaron” erako presidentea duen gobernu batek ez du inoiz erakutsiko neurri politiko proportzionala. Harrapakinarenean zain egongo da, hau noiz hurbildu itxaroten beratu irensteko. Eta Katalunia mokadu gozoa da. 2016. urtean estatu espainolaren Barne Produktu Gordinarenean %19 suposatzen zuten Kataluniak eta aurtengo %21 zatitara iritsi daiteke. Barne Produktu Gordina herrialdeen jardueraren ekonomikoaren neurtezko balio duen magnitudea da, magnitude makroekonomikoa. Horra hor ehunekoetan Espainiako kezkaren gakoak, Kataluniaren magnitudea. Eta hau ez da edozein lako.



# TABIRA

Eguneko zentroa eta Egoitza gerentzia berria

Intxaurren, 27 DURANGO  
944 668 852 / 690 622 499



*Hartu atsedenalditxo bat*

[www.cuidamosdetusmayores.com](http://www.cuidamosdetusmayores.com)

- Zaintza eta zerbitzua adindunei •
- Prebentzio Sanitario, Psikologiko eta Fisioterapeutiko handia •
- Ile-apainketa eta podologia zerbitzua •
- Aisialdia eta eguneko ibilaldiak •
- Terapia okupazionala •
- Aldi baterako egonaldiak •
- Herriguneko instalazioak ongi komunikatuta •
- Zaintzailearen atsedena •
- Lan talde bikaina •